

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Azaroak 20  
429. zenb.

## Badator Kultur Errota

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KULTURA ELKARRIZKETA: FELIX AIALA  
EUREN IKUSPUNTUTIK: AITOR ITURRIAGA • KIROLAK: TRIAL TXAPELKETA

# Hi. Hirekin

kutxa batean aurkitzea espero duzun guztia (eta inoiz uste izango ez zenukeena) GazteKutxan aurkituko duzu. Pertsonengandik hasita. Guregana hurbiltzen zarenean edo deitzen diguzunean, berehala konturatuko baitzara, jende jator askoarekin ari zarela. Parez pare hitz egingo dizun jendea. Hainbat ideia emango dizkizuna, hurbiletik hunkitu bai baina poltsikoa apenas ukitu dizuten ideiak, guztiak ere. Zeuk eskatu. Zeure esanetara gauzkazu.

[www.gazteKutxa.net](http://www.gazteKutxa.net)



Hi. Hirekin.

**gazte** kutxa

Tú. Contigo.

# Aurreikusitako zorigaitzak

**B**este behin berriro, naturak munduko herrialde txiroenetako batzuetan izugarritzko sarraskiak burutu ditu (gizakiak berak baino eskubide gehiago izango du, antza). Oraingoan urakan bat izan omen da eta "Mitch" izena jarri diote. Zer ohitura bixia, katastrofe eragile hauei izena jartzearena!



Iker Barandiaran

Hildako kopuru ikaragarria dago jada, eta bizirik gelditu direnen artean asko bizileku eta ia janari gabe, egoera oso gogorren. Denok ikusi ditugu irudiak telebistan. Une hauetan dena da errukia. Denok gara... Badakizue, betikoa! Bat-batean, janari eta mantaz betetako hegazkin batzuk bidaliz, lasai asko geldituko gara. Laguntzak, sarraskia gertatu ondoren datoz, baina inoiz ez lehenago. Herrialde "garatuetako" gobernuek,

tankera honetako keinu humanitario-interesatuak, une larri hauetan bakarrik egiten dituzte, eta urte osoan zehar ez dira hango beharrez ezertxo ere ardurutzen.

Hirugarren Mundua deitzen omen den munduko eremu zabal hori (uste baino handiagoa dena), kapitalismoaren mundializazioak ezarritako baldintzen menpe dago ia betidanik. Herrialde

hauek kolonia gisa izan zituzten bitartean, ahal bezainbeste xurgatu, makaldu edo txirotu zituzten, beste gauza askoren artean. Ondoren, urteak aurrera joan ahala, eta boladan zegoenez, herrialde hauei nolabaiteko edo itxurazko burujabetasuna baimendu zieten, baina praktikan menpeko egoera antze-

koan diraute. Kanpo zorra- ren bitartez, beren kasa aurrera egin ahal izateko eta benetan garatzeko behar dituzten baliabide guztien lorpena oztopatzen

diote, behin eta berriro.

Nazioarteko Diru Fondoak, Banku Mundialak, Zazpi handiek, guk — iparraldeko biztanleak garen heinean— eta baita, noski, multinazionalak zein enpresa handiek izugarritzko probetxua hartzen diete hauen menpeko egoerari eta baldintza mixerablei.

Laguntza puntualak bideratzen dituztenek ondo baino hobeto dakite limosna hauek ez dutela ezer konponduko. Zerbait hobetu nahi izanez gero, benetako neurriak beharko lirateke: kanpo zorra behin betikoz kentzea, xantajerik edo baldintzarik gabeko laguntzak ematea, beren kasa bizirauteko baliabide eta azpiegiturak erraztuz eta eskainiz, etab.

Eta ez itzazue zuen buruak engaina: ehuneko 0,7k, Amnistia Internacionalek, Gobernu Kanpoko Erakunde askok, eta abarrek hilean kuota bat ordainduz biztanleriaren kontzientziak lasaitzea besterik ez dute bilatzen. Gaur egungo bizimoduaren isla besterik ez dira: konponbiderik eza eta itxurakeria. ■

**"GKA askoren lanak biztanleen kontzientzia lasaitzea bilatzen du"**

*"Euskararen inguruan gaudenok gutxi gara eta gure artean indarrak biltzea beharrezkoa da, nahiz eta ikuspegi bestelakoak izan.*

*Orain, gainera, oso egoera interesgarrian gaudela uste dut"*

**Nerea Alzola**


**ARRO**  
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Oñatorra Kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal, **Kazetariak:** Manjoo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa, **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15), **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 79 02 26)  
**Diseinua:** Txos Azumendi, **Asteburuetako berri-maileak:** Gontzal Landa, **Bekaduna:** Anartz Agirre, **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joverra Agirreumeta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenjos, Mikel Irizar, Udaleko Gazleria Salla, ASA Italde, Besalde M. E., Karmelo Uribearen, Bixente Pagaaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Maitide Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maitte Barrena, **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 26), © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISRN:** 0214-4654. **Franko konzentratua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta itzizien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



**2,5**  
milioi pta udaletik  
Nikaraguarako

Joan den asteleheneko Gobernu Batzordeak erabaki zuen legez, Arrasateko Udalak 2,5 milioi pta emango ditu Mitch urakanaren eraso jaso duten Nikaraguako herriei laguntzeko. Dirua Euskal Fondoaren bitartez bideratuko da. Herri-tarrek ere diru asko eman dute.

## ITURRI ONETIK

### Nafarrak beti lagutzen

Arrasate Press sortu zenetik 1988ko abenduaren 2an, Nafarroak hiru gobernuburu ezagutu ditu: Gabriel Urralburu, Juan Cruz Alli eta Miguel Sanz. Lehena sozialista, bigarrena CDNkoa gaur egun eta hirugarrena UPNkoa.

Kontua da Nafarroako Gobernuak beti lagundu duela Arkok antolatutako herri komunikabideei buruzko jardunaldi guztietan. Aurten ere bai. III. Jardunaldien aurkezpenean hiru ordezkari etorri ziren Donostiara, nafarren presentzia ziurtatzeko asmoz.

Beste muturrean Arabako eta Bizkaiko foru aldundiak leudeke. Inoiz ez dute lagundu. Arabarren kasuan agian uler liteke errazago arrazoa, baina Bizkaian euskaraz lan egiten duten herri aldizkari asko dago. Zergatik ez lagundu orduan?

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 20**  
• Gaeuz eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 21**  
• Gaeuz eta egunez: Ruiz, Maala
- Igandea, 22**  
• Gaeuz eta egunez: Morales, San Andres
- Astelehena, 23**  
• Gaeuz eta egunez: Azkoaga, Ferrerias
- Astearte, 24**  
• Gaeuz eta egunez: Español, Iturriotz
- Asteazkena, 25**  
• Gaeuz eta egunez: Korkuera, Musakola
- Osteguna, 26**  
• Gaeuz eta egunez: Irizar, Erguin

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritotxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutz Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 79 13 57  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
• Espezialitateak ..... 943 77 05 78  
..... 943 77 12 64  
Oñati ..... 943 78 08 52  
Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44
- Udalzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 76 14 69  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Kontsumitzailearentzako informazioa**  
KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55
- Monterron liburutegia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## ERASO SEXISTEI STOP!

**B**ere burua gizarte zibilizatutzat duen gizarte batean, onartezinak eta justizia gabekoak diren egoerak bizi ditugu.

XXI. mendearan aurrean emakumeok beldur gara, ez da beldur irrazional bat, denok dakigu zein erraz erabiltzen den biolentzia sexista gure aurka.

Gure herri eta auzoetako festak paregabeko aitzakia bihurtzen dira erasoetarako. Milaka gizonen buruan mar txan dagoen emakume-objektu ideia garbi azaltzen zaigu kale, etxe, lan edo edozein esparrutan. Hauek eskubidearekin sentitzen dira ikutzeko, iraintzeko edo erasotzeko, hau guztia emakume izateagatik. Hainbeste gorroto... Senar izanak mendeku bila, bere boterea argi utzi nahi duten aita-anaiak, konfesatu ezinezko ansiadun patrioiak, satisfazio sexual ilunen bila dabilzan gazte zein helduak... hauek guztiak erasotua iraindu, makurrarazi... dezakete nahi izanez gero.

Gehiago esan behar dugu: Estatuaren beraren zutabeetatik erabiltzen da bortxaketa, gure duintasuna zapuzteko. Zorritzarrez, tortura gure herrian istorio zaharra da. Ehundaka emakumek jasan dituzte tratu txar eta torturak komisaldegietan, irain, abusu eta bortxaketak Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan gure parte hartzea deusezteko asmoz, baina argi eduki dezatela emakume feministok gure aska-

tasunaren alde borrokatuko dugula.

*Arrasateko Egizan*

## YO PASSO!

**T**amalez, Arrasaten esatera zaharra bihurtu zaigu honako hau. Badirudi herri honetakook ez dugula inongo kezka garrantzitsurik, asteburua nola antolatu edo autoa erosi edo porrotxoak hartzekoak baino. Agian jabetuko zineten guztioi eragiten digun aurreragoko arazorik ere badagoela.

Beti esan dugun legez, Euskal Herriaren oinarria euskara dugu. Urteetan zehar hau berau berpiztu nahirik gabiltza, euskaltegiak sortzen, etab. Gaztelaniaz hitz eginez norbanakoa erosoago sentitzen da, antza, egungo Arrasaten.

Geroz eta barneratuago daukagu hizkuntza espainola gure artean eta egoera penagarri honetan gure euskara normalizatzeko kanpainak antolatu beharrean aurkitzen gara (Mondragon Unibertsitatea, kasu).

Estatu espainola gure herri nortasunaren oinarria lapurtzen ari zaigu eta guk geuk laguntzen diogu bere arma nagusietako bat, gaztelania, gure lagunartean sartuz.

Dudarik gabe, euskararena gure erronka nagusienetakoa dugu. Ez dugu, ordea, drogen kontua ahaztu behar.

Ez zaitzate gaitz "itsu-tu" beren drogekin! Neutralizazio prozesuaren funtsezko osagaiak dira eta egunero nahasten dituzte gutako bako-

tzaren bizitzan. Askotan ezizusia egin nahi dugun arren, onartu beharrean gaude gure artean oso egunerokotuta dagoela droga. Indibidualismo nazkagarri batek agintzen du gure gizarte honetan eta marionetak bagina bezala erabiltzen gaituzte, pasibitate eraginkor hori beren interesentzat aprobetxatuz.

Gazteoi geure arazoan aurrean mugitzeko indarra kendu nahi digute. Estatuak eskainitako irtenbide errazekin konformatzen zarete, honela askeagoak izango zaretelakoan, hobeto biziko zaretelakoan, honetaz guztiaz ahaztuz. Baina benetan, inor baino lotuagoak zaudete, dagoeneko ez baitzarete gai errealitatearen aurrean begiak zabalik izateko ere. Haiek hori nahi dute lortu eta lortzen ari dira.

Begiak zabalduz gero, garaiz gabiltza oraindik geuriari eusteko.

Galtzen duzun arte ez zara zenuen guztiaz jabetzen!

*Arrasateko Jarrai*

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**  
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Zenbat lo egiten duzu batez beste egunean?

Egin berri den inkesta batek dio euskaldunok gure ingurukoek baino lo gehiago egiten dugula.



**Unai Diez**  
(25 urte)  
Ikaslea

Zazpi-zortzi bat ordu. Asteburuetan gutxiago. Horrekin nahikoa dut. Hala ere, egunero ordubeteko biagoa egitea gustatzen zait.



**Haimar Zuazubiskar**  
(18 urte)  
Ikaslea

Zortzi bat ordu. Asteburuetan gehiago, baina lo faltan ibiltzen naiz.




**Tamara Amaral**  
(9 urte)  
Ikaslea

Bederatzi ordu batez beste. Hala ere, logura ibiltzen naiz. Horregatik larunbat-igandean lo piloa egiten dut.



**Andres Rojo**  
(69 urte)  
Erretiratua

Sei-zazpi bat ordu. Orain lehen baino lo gutxiago egiten dut, baina lanik egiten ez dudanez, ondo nabil horrela.



**Santiago Mata**  
(68 urte)  
Erretiratua

Zazpi bat ordu. Gorputzak lanik egiten ez duenez, lo gutxiago egiten dut. Egunero biagoa egiten dut.



**Rosa Rocha**  
(19 urte)  
Langilea

Zortzi bat ordu. Lanean nabil eta ohituta nago.



**Manuela Pineda**  
(92 urte)  
Erretiratua

Gaueko hamarretan oheratzen naiz, goizeko hamarrek arte. Hamabi bat ordu. Horrela ondo nabil.



**Rosa Maria Sanchez**  
(32 urte)  
Etxekoandrea

Zortzi bat ordu, berdin lanegunetan edo asteburuetan ere. Horretara nago ohituta.

**OKELAK ETA ARRAINAK PARRILAN**

**UNZUETA**  
J A T E T X E A

- Ospakizunak
- Jaunartzeak eta bataioak

Zabola auzoa. ARAMAIO. Tel.: 945 44 50 95

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

**Ipek**  
Denda

Isturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

## PDP-REN ESKUTITZARI ERANTZUNA

Joan den astean ARKOra bidalitako eskutitz baten berri izan genuen mondrauetarrok. Igorlea Arrasateko Partidu Eskuindar Popularraren Gazteria Saileko Elkarte Klandestinoa ei zen eta hiru pertsona ezberdinengana zuzentzen baziren ere, eskutitzaren edukina euskaltzale guztioi zegokigun.

PDPkoen iritziz herriaren dirua ezin da erabili euskara hutsean argitaratzen den aldizkari baterako. *Arrasate Presi* pluraltasun eza eta euskara ez dakitenekiko errespetu falta leporatzen dio. Honetarako Konstituzioaren 3.1 artikulua aipatzen du ("Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala; Espainol guztiek jakin behar dute eta erabiltzeko eskubidea dute"). Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldetik EAeko Estatuaren 6. artikulua begiratzeko eskatzen diogu ("Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du EHn, gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea").

Izan ere, Euskal Herrian nork dauka errespetu falta? Zenbat aldiz jasaten dugu euskaldunok irainen bat geure hizkuntza erabili nahi izateagatik? Euskal Herrian euskara gaztelaniarekin batera ofiziala dela esaten bada ere, benetan ematen al da ofizialtasun hori? Gainera, artikuluan

Euskal Herria esaten bada ere, denok dakigu EAera mugatzen dela bakarrik.

PDPko kide honek dioenez, astero *Arrasate Press* jaso orduko zakarrontzira botatzen omen du, baina hau honela bada, nola daiteke aldizkari-ko zuzendaria eta kolaboratzaileak zeintzuk diren jakitea eta are gehiago, hauek idatzitakoaren berri izatea?

Pertsona honek argi utzi nahi du "EAeko hiru herrialdeak estatu espainiar handiago, indartsuago eta garaiago baten zati direla, orain bostehun urte inperio handi bat eratu zuena". Igande honetan Inestrillas eta bere lagun faxistak gauza bera aldarrikatzen izan genituen herrian; PDPkoek gonbidatu ote zituzten?

Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldekook ARKOko langileoi elkartasuna adierazi nahi dizuegu euskaltzaleok ongi baitakigu orain arteko lana gogorra izan dela eta nahiz eta sarritan honelako erasoak jaso, aurrera egin behar dugula.

Seguraski Partido Derechista Popularrekoek lortu dute euren lehenengo nahia, hau da erantzun bat jasotzea. Gure nahia ez da beraien jokoa erortzea, baina euskararen ofizialtasuna behingoz lortzearen lanean ari garen talde bezala, ezin izan dugu erantzun bat eman gabe gelditu. Era berean, gainontzeko talde euskaltzale eta orohar euskaldun orori honelako eraso- en aurrean ixilik ez gelditze-ko eta lanean jarraitzeko eskatzen diegu.

Orain hogeitau urte bezala

euskal gizartearen gehiengo-ak *Bai euskarari* esaten dion bitartean, beste batzuek euskarari eraso egiten segitzen dute. Gure hizkuntzak bizi behar duelako, inoiz baino ozenago diogu *Bai euskarari!*

*Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz*

## ARKO ITXI NAHI DUTENEI

Ez dakit jakingo duzuen, ARKOren helburu nagusia informatzeaz kanpo, euskara bultzatzea eta bere erabilerarekin ekintzak buru daitetzkeela sinestaraztea da. Hori sinetsi nahi duzuen errealitate bat da.

Hau ez da eztabaida sortzeko gutuna, zuei eskerrak emateko eskutitza baizik. Eskerrak, zeren zuen fundamentu gabeko artikuluek nire euskalduntasuna berpizten baitute eta honek ematen dit indarra egunerokotasunean (Osakidetzan, erakundeetan, txikietoan...) euskara eskatzeko.

Udal liburutegira joan, zuen konstituzioa eskutan hartu eta hor non dagoen hiru- garren artikulua. Zuei toga kendu eta orain nik egingo ditut sasiletratuarenak.

3.1 artikulua: "El castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienes el deber de conocerla y el derecho a usarla".

Zergatik ahaztu duzue zuen mehatxuan "derecho" edo eskubide hitza? Interpretazio edo manipulazio hori

zuen konstituzioan delitu penala da.

3.3. artikulua: "La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección".

Zergatik izendatzen duzue zure artikuluan 3. 3 puntua? Mesedez ez adarrik jo, zuek erakutsi baitiguzue, **Iker Barandiaran** beharrean, ez zoaztela unibertsitatera, kantinara baizik.

ARKO, AED, dantza taldeak... beharrezkoak dira Arrasaten euskara eta euskal kultura bultzatzeko. Ez da nahiko zuentzat euskararen erabilera apala dela ikustea, hori ere zanpatu nahi duzue?

Ni ere kritikatu nahi baldin banauzue, nire izena ez dakit nola espanyolizatu, baina bai abizena: *Valle de Piedra*. Momentu honetan Irakasletza ikasten ari naiz eta gustura erakutsiko nizueke guztioi euskaraz egiten, ederra eta aberatsa baita euskaraz bizitzea.

*Eñaut*

## • A R T E A •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak, Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE



## Pavimentos AGR ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta bamizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK

**LOGELATAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errazago aurkitzeko merkataritza zentrua. 49 urteko esperientzia. Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxa: 79 41 82

**ARRASATE**

# 20 ostirala

■ ZINEA

*Los años Bárbaros*, Alai zinemari, 22:00etan.

■ BELDURREZKO FILMAK

Fantasia eta Beldurrezko zine maratonia egingo da 22:00etatik aurrera, Amaia Antzokian. 600 pta. ren truke hiru film labur eta hiru film luze ikusi ahal izango dira, guztiak Tinieblas Gonzalezek aurkeztuak.

# 21 larunbata

■ ZINEA

*El negociador*. Alai zinemari, 19:00etan eta 22:00etan.

■ KULTUR ERROTA

Kultur Errota ekimenaren barruan, lehenengo ekitaldia Amaia Antzokian egingo da. Gaueko 22:30etan izango da. Ander Lipusen bakarkako antzerki saioaren ostean, Mixel Ducau eta Caroline Phillips abeslariak arituko dira antzokiko hallean. Sarrera 300 pta. kostako da.

■ EXTREMEÑOEN URTEURRENA

Corazon de Encina Extre-

madurako kultura elkarteak bosgarren urteurrena ospatuko du. 14:30etan babajana egingo dute bazkide guztientzat. 19:00etan Gasteizko Guadalupeko Ama Birjina taldeak kantu eta dantza saioa eskainiko du. 20:00etan, berriz, Tarama rumba eta flamenko taldea arituko da. 24:00etan dantzaldia, Iñigo soinu-jolearekin.

■ MUSIKA CAFE-PIANOAN

Juan Luis pianojoleak piano emanaldia eskainiko du Mondragon Hotelean. Emanaldia 23:00etan izango da.

# 22 igandea

■ ZINEA

*El negociador*. Alai zinemari, 19:00etan eta 22:00etan.

■ MUGARRIZ MUGARRI

AEDK antolatu duen ekimen honen hirugarren mendi irteera egingo da. Goizeko 08:00etan aterako da autobusa Garibai kaletik. Oraingotan Udala-Besaide-Udalatx-Kanpanzar-Epele-Kataide ibilaldia egingo dute mendigoizaleek.

■ CORAZON DE ENCINA

Extremadura etxearen bosgarren urteurrena dela eta, 15:30etan billar erakustaldia egingo da, jokalariek profesionalek egina. Zentruak eratu-tako II. Txapelketaren finala ere jokatuko da.

■ JUAN LUISEN PIANOAN

Mondragon Hoteleko Cafe-Pianoan arituko da Juan Luis pianojolea, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

# 23 astelehena

■ ZINEA

*El negociador*. Alai zinemari, 19:00etan eta 22:00etan.

■ ASTE ARABIARRA

Arrasateko Komite Internazionalistak Aste Arabiarrari antolatu du. Hainbat hitzaldi antolatu ditu horretarako. Lehenengo astelehenean izango da, "Erreferenduma noizko" izenburupean, Frente Polisarioko Mohamed Salemekin. Hitzaldia Monterronen izango da, 19:00etan.

# 24 asteartea

■ ZINEA

*El negociador*. Alai zinemari, 19:00etan eta 22:00etan.

■ LANDAREAK ETA LOREAK

Jakoba Errekondok landare eta lore zainketa ikastaroari ekingo dio Gesalibar auzoko Jentil-Ola elkartearen, 18:00etatik aurrera. Hurrengo saioa abenduaren 1ean izango da.

■ ASTE ARABIARRA

Aste arabiarrarekin jarraituz, Ignazio Alvarez, *Mundo Arabe* aldizkariako kideak "Palestina: desadostasun berriak" izeneko hitzaldia emango du. Monterronen, 19:00etan.

■ KONTSUMOA ETA ELIKADURA GABONETAN

Gabon otorduetako ardoak aukeratzen ikasteko saioa antolatu du Eroskiren Kontsumo Aretoak. Saioa Paloma Tella enologo eta Bordeleko Unibertsitateko kideak eskainiko du. 16:30etan Eroskiko Kontsumo aretoan.

# 25 asteazkena

■ EMAKUMEEN ALDE

Egizane "Emakumeei egindako tratatu txarren kontrako nazioarteko eguna" dela eta, kontzentrazioa egiteko deia egin du, herriko plazan, 20:00etan.

■ ASTE ARABIARRA

Komite Internazionalistak antolaturiko hirugarren hitzaldia "Irak: heltzen zaigun desinformazioa" izango da Carlos Varearekin, Comite de Solidaridad arabe taldeko kidearekin. Monterronen, 19:00etan.

■ GABONETAKO ELIKADURA

Gabonetan ere modu egokian jaten ikasteko, Eskarne Irastortza Elikadura eta Higieneko espezialistak, hitzaldia eskainiko du Pedro Gartzia Sukalkiko sukaldariarekin batera. Eroskiko Kontsumo aretoan, 16:30etan.



# 26

## osteguna

### ■ HAURRENTZAKO ANTZERKIA

Taupada antzeztaldea Gianni Rodariren *Terribilis Dokorea* obra eskainiko du liburutegian. Lana 6-8 urteko umeentzat prestatua dago eta saioa Monterroneko haur liburutegian izango da, 18:00etan. Hurrengo egunean, ostiralean, Santamainako auzo liburutegian eskainiko dute antzezla- na, ordu berean.

### ■ BIDEZKO KONTSUMOA

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua izenburuean antolatu du hirugarren hitzaldia Eroskik. Hantxe izango dira Maite Orue Intermon Euskadiko lehendakaria eta Iñaki Maruri Harreman Gobernu- z Kanpoko Erakunde-ko ordezkaria. Eroskiko Kontsumo aretoan, 16:30etan.

### ■ SEXUA MINTZAGAI

"Gizonak eta emakumeak: behar dugunaren eta desiatzen dugunaren arteko kontraesanak" izenburuean hitzaldia antolatu du Arrasateko Udaleko Aholkularitza Sexualeko Zerbitzuak. Aniztasuna egitarau- rauren barruan kokatzen da hitzaldia eta Agurtzane Orma- za eta Garbiñe Merino sexolo- goek eskainiko dute, 19:00etan, Monterronean.

### ■ PIANO EMALDIA

Juan Luisek beste emaldi bat eskainiko du Cafe-Pianoan arratsaldeko 19:00etatik 21:00ak arte.

### ■ BAI EUSKARARI

Bai Euskarari kanpainaren inguruan herri afaria antolatu da datorren azaroaren 28rako. Sarrerak salgai daude 2.000 pta.tan, AED, Monte eta Biona taber- netan, ERDU-AEKn eta udal euskaltegietan eta herriko ikastetxe gutzietan.

### ■ LIXARGARATERA IRTEERA

Besaide Mendizale elkarte-ko Gazte Ekintzak Lixargarateko aterpertzera irteera antolatu du azaroaren 27tik 29ra. Izen emate- a azaroaren 25ean eta 26an egin ahal izango da, Besaideren egoitzan, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

### ■ GOZOKIGINTZA IKASTAROA

Familia eta Gizarte Hez- kuntzarako zentruak gozo- kigintza ikastaro berezia antolatu du Gabonetarako. Egin ahal izango diren postreen artean konpotaz- ko txutxuak, txokolatzeko otartxoak marmeladarekin, txanpain sorbetea eta trufak daude. Saioak aben- duaren 4an, 11n eta 18an izango dira eta izena emateko epea azaroaren 27an, ostirala, amaituko da. Tel.: 943 79 04 59 edo 943 79 56 40.

### ■ EGINGO DUGU

Egin egunkaria ordezkari- tuko duen egunkariaren aldeko jaialdi erraldoia antolatu du Egingo Dugu elkargoak datorren azaroaren 29an. Jaialdia Donostiako Anoeta belodromoan izango da. Hantxe arituko dira, besteak beste, Lluís Llach, Enrike Morente, Mi- kel Laboa, Ange Duhalde, Igor Elortza, Andoni Egaña, Evaristo, Unai Iturriaga, Kepa Junkera, Maialen

Lujanbio, Ruper Ordorika, Juan Carlos, Jon Sarasua eta Joseba Tapia.

### ■ ARKITEKTO LANPOSTUA

Tito Perkaz arkitektoaren lanpostua modu iraun- korrean betetzeko hautake- ta prozesua ireki du Arrasateko Udalak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argita- ratu zen azaroaren 11n. Oinarriak udaletxean jaso daitezke.

### ■ BIZITZA MINATUAK

Pertsonen kontrako mi- nei buruzko argazki erakus- keta ireki da Monterronean. Lanak Gervasio Sanchez- enak dira, eta erakuske- taren ordutegia honako hau izango da: egunero 18:00e- tatik 20:00etara eta larun- bat eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### ■ AEK-REN ZOZKETA

Hauxe da AEK Egunean Karibera joateko egin zen zozketaren zenbaki irabazlea: 21.129.

### ■ MARGO ERAKUSKETA

Felix Aialak *Taupada* izenburuko pintura erakusketa ireki du abenduaren 5a arte. San Ferminetako entzierroen inguruko margolanak Harresi aretoan egongo dira ikusgai, lanegunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

### ■ ZINEA

#### JABI MAYORREN ALDE

Jon Andúezak, Xabier Alberdik eta Aitor Agorriak Bernar filma eskainiko dute Amaia antzokian 22:00etan. Sarrera 500 pta. kostako da eta lortzen den dirua Jabi Mayorrek Aita Menni ospitalean jasotzen dituen prestakuntzen gastua ordaintzeko erabiliko da. Bernar film laburrak gain, 4. Galeriatik Jon Anduezen aurreko lana ere ikusi ahal izango da.

### ANBULATORIOAK TELEFONO ZENBAKIAK ALDATU DITU

Arrasateko anbulatorioak bere telefono zenbakiak aldatu ditu. Joan den azaroaren 16tik lanean dauden telefono berriak honako hauek dira:

Ospitalea eta larrialdia: 943 03 53 00

Zuzendaritza: 943 03 53 01

Aurrez eskatutako hitzordua: 943 03 52 50 (17:00ak arte)

Espezialistak: 943 03 53 11

Ikuskatzailletza: 943 03 52 52

Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11

Fax zenbakia: 943 03 05 14

USTEAK USTE

Zer gertatzen ari da hemen?

**O**rain hilabete pare bat Juan Ignacio Landa ESK-ko bozeramaileak ATBko erredakzio burua jorratu zuen, esanez alkatearen esanetara zegoela udalari buruzko hainbat berri zentsuratzen.

Orain pare bat aste Ino Galparsoro HB-ko zinegotziak Arrasate Press hartu zuen hizpide, "azken denboretan nabaritzen hasiak garen agintarie-kiko 'begirune' larurka hori" kritikatu.

Joan den astean Agustin Ugarte EAJko lehendakariak (alkatearen eta beste burukide batzuen aurrean) ez zien utzi ATBko kazetari-kameralariei batzokian sartzen bilera baten berri emateko, "ez zegoelako ados etxe honen jokaera informatiboarekin".

Orain espainiar ultranazionalista anonimo batek Arrasate Press ixteko kanpaina bat iragarri digu, aldizkari honi buruz sekulakoak esanez.

Zer gertatzen ari da hemen? Ez gairela gauzak hain ondo egiten ala hemen mundu guztiak "bere esaneko" diren komunikabideak nahi dituela?

Joxe Aranzabal



Mitch urakana: "Haizeak eraman zuena"

Aitor Iturriaga\*

**E**z da hau garairik proposena Ertamerikako egoeraren gainean konparaketa merkeak egiteko, baina Victor Fleming-en film ezagunaren izenburua gogoratu dut hango trejediari buruzko hausnarketaren ondoren.

Ura kanak pertsonak eraman ditu (20.000 lagun inguru), uztak (ekoizpenaren erdia), azpiegiturak, etxeak. Hamar urte behar izango omen dute nazio horiek aurreko maila ekonomikoa berreskuratzeko, hau da, lehen bezain pobreak izaten segitzeko.

Halere, haize indartsu horrek balio izan du men-debaleko estatu aberatsen itxurazalekeria estaltzen zuen zapia altxatzeko.

Askotan entzun izan dugu gure ekonomia "aurreratua" Hirugarren Munduari zor diogula neurri handi batean eta Mitch-ek erakutsi digu hori egia dela: nazio aberatsak izan

zitezkeenak pobreenak dira.

Mendez mende lehen-gaiak lapurtu dizkiogu; kolonialismo ofizialaren ordezkioak gure multinazionalak (Euskal Herrikoak barne) dira orain; industria kutsagarriak hara bidaltzen ditugu; oso merke ekoizten dutena garesti saltzen diegu guk; eta ordaintzeko diru nahikorik ez dutenez, sekula itzuli ezingo dituzten kredituak ematen dizkiogu, eta horrela betiko harrapatuta ditugu.

Behar ez dutena erostera behartzen ditugu. Bereziki armak.

Egoera horren aurka

“  
Hamar urte behar izango dute nazio horiek aurreko maila berrezkuratzeko  
”

altxatzen badira, hor ditugu Estatu Batuak, komeni zai-gun egoera politikoa ezar dezaten. Adibideak asko dira: Txile, Nikaragua, Mexiko, Guatemala, El Salvador, Panama, Bolivia eta abar. Kubari ez diote barkatzen zutik irautea.

Gure sasidekrazia eta ekonomia "libre"aren izenean dena libre da: estatu kolpeak, inbasioak, gerrak, bahikuntza ekonomikoak, militar eta politikari ustelak boterean jartzea...

Halaber, agerian gelditu da gizarte zibila estatu eta erakunde ofizialen aurretik doala herri kaltetuei laguntza emateko orduan. Herri xeheak borondatea eta asmo ona erakutsi ditu, eta horretaz baliatu izan da bankero korbatadun bat baino gehiago bere politiko ondo berotzeko.

Txarrena da hamabost egun barru gai hau ez dela boladana egongo eta egin beharreko lana epe oso luzerako dela.

Bien bitartean, zer egin? Nire ustez, beharrezkoa da gure erakunde laguntza ekonomikoa (Arrasateko Udalarena Euskal Herriko txikienetakoa izaten ari da azken urteotan). Baina ahal dugun neurrian gure lanak beste bi helburu garrantzitsu izan behar ditu: nazio pobreen kanporoz osoa barkatzea eta arma esportazioak debekatzea.

Animo, eta denok laguntzera.

\* Komite Internazionalistak

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 943 79 91 84  
ARETXABAETA

**PEUGEOT**  
Salmenta eta zerbitzua

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**  
Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Seinale berriak**

Ekaina eta iraila bitartean seinaleak jarri ziren Arrasateko baserri auzoetan. Datorren urterako aurrekontuetan onartuz gero, seinalizazioaren bigarren faseari ekingo zaio. Honela, baserri bakoitzak orain daukan burdinazko seinalizazioa, egurrezko seinaleek ordezkaturiko lukete. Seinale hauetan, baserriaren izena, zenbakia eta udalaren logotipoa agertuko lirarteke. Seinale zaharrak orain hamar urte banatu zituen udalak eta nahiko hondatuta omen daude.

■ **Panteoien apainketa**

Arrasateko Udalak bost enpresari egin die dei Aldaiko hilerrietik San Kristobalera pasatzen ari diren panteoien apainketa lanak adjudikatzeko. Hauek dira enpresak: Mármoles Arrasate, Marmolería Bergaresa,

Marmolan, Mármoles Vicuña eta Mármoles Oñati. Enpresek eskaintzak aurkeztu beharko dituzte, udalak egokiena aukera dezan. Oraindik bada panteoi aldaketa burutu ez duen jendea. Egoera horretan daudenei udalak ekonomikoki lagunduko die, egin beharreko apainketa lanak neurri batean ordainduz.

■ **Extra, astekari**

Urtebete pasatxo kalean egon ostean, astekari izatera pasatuko da Deba Garaiko *Extra* aldizkaria. Urtarriletik aurrera egingo dute aldaketa. Bi erronka nagusiri aurre egin nahi diete: alde batetik, jende guztiak ulertu ahal izateko, erdaraz zein euskarazko edukiak landuko ditu aldizkari honek. Bestetik, Deba Garaiko herriak batzen dituen astekaria izan nahi dute. Martin Calvo

zuzendariaren esanetan, herri aldizkariak ematen duten informazioa sakondu eta osatzea da asmoa, inolako lehia motarik gabe. Honetaz gain, hamabostean behin, kirolari buruzko aldizkari bat plazaratuko dute.

■ **Soldadugaien zozketa**

Pasa den astezken gauean, 1972tik 1981era bitartean jaiotako 108 mondragoetar zozkatu zituen Espainiako armadak. 99ko errenplazukoak dira guztiak. Espainia osoan, berriz, 136.696 pertsonak egingo dute soldaduzka datorren urtean. Aurtengoa Espainiako Defentsa Ministerioak egingo duen azkenengoetako zozketa izan da. Madrilgo gobernuak derrigorrezko soldaduzkaren desagertzea aurreikusi du 2003. urterako. Hori dela eta, laster desagertuko dira honelako zozketak.



**LARRIALDI ZERBITZUEI BURUZKO V. JARDUNALDIAK**

Deba Garaiko eskualde ospitaleak antolatuta, Larrialdi Zerbitzuei buruzko Jardunaldiak izan ziren ostiralean Aita Menni ospitalean. 200 lagun izan ziren jardunaldi hauetan. EAEko larrialdietako garraioekin zerikusirik duten profesionalak bildu ziren. Gaixo bat ospitale batetik bestera garraiatu behar denean, koordinazio lanak nola azkartu eta hobetu aztertu zen. EAEko eritetxeetako profesionalak bildu ziren Aita Mennin.



“Kooperatibek enpresek orokorrean duten erronka berbera dute: lehiakorrak izatea. Arizmendiarietak esaten zuen emaitza posotiborik ez duen kooperatiba ez dela, kooperatiba ez izanda ere, emaitza onak lortu eta lanpostuak sortzen dituen beste enpresa bat bezain interesgarria. Lan elkarte hauek lehiarako egoeran mantendu behar dira eta horretarako etengabeko bilakaera izan behar dute bai teknologian, kalitatean eta baita metodologian ere”.

**JESUS LARRAÑAGA**  
Correo, 1998.11.15

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**  
Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 78

**MARKO-JARTZEAK  
ALDEDI**  
Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**HIES  
EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiralean  
Setatik 8etara.  
Tel.: 943 79 26 99

# Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak aurkeztu dira Donostian

Asteartean Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak aurkeztu zituen Donostian Arrasate Komunikabideak elkarteak. Azaroaren 27an eta 28an izango dira, Arrasaten eta hobekuntza izango dute aztergai nagusia.

Aurkezpen ekitaldian Aitor Orobengoa eta Joxe Aranzabal izan ziren, Arkoko lehendakaria eta erredakzio burua hurrenez hurren. Baita Josune Ariztondo Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburordea, Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia eta Xabier Huizi Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria.

III. jardunaldi hauek *Arrasate Press* aldizkariaren X. urteurrena (abenduarien 2an beteko ditu urteak) aitxakiaz hartuta eratu dira. Bi egunehar, gai mordoaz aztertuko dira: erabateko kalitatea, aldizkariaren diseinuaren, edukien eta euskararen kalitatea, irakurleen leialtasuna irabazteko bideak, hurbiltasunak eragindako presioak, herri aldizkariaren egoera, publizitatea, kalitate kontrolaren inguruko esperientziak, euskarazko herri telebista berriak, herri komunikabideen tokia euskarri berrietan eta herri komunikabideen egitekoa Eusko Jaurlaritzak prestatu duen Euskara Biziberritzeko Planean.



ARKOko ordezkariak eta agintariak aurkezpen ekitaldian.

## JENDE EZAGUNA

Jende ezaguna bilduko da Euskadiko Kutxak Arrasaten duen egoitza nagusiaren inguruetan: Antonio Cancelo MCCko lehendakaria, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Ibon Sarasola euskaltzaina eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Ricard Rafecas Kataluniako

Eskualdeko Prentsaren Elkarte lehendakaria eta Cristina Lopez Mañero Nafarroako Unibertsitateko irakaslea, besteak beste.

Guztira 17 bat hizlari, hitzaldi, mahai inguru eta kritika saioetan parte hartuko dutenak. Antolatzaileek adierazi dutenez, 200 bat lagunek parte har dezakete jardunaldiotan, gehienak ere euska-

razko herri komunikabideen inguruan dabilzanak.

Lehen jardunaldiak 1991n egin ziren, Arrasaten. Bigarrenak ere bai, bi urte geroago. Orduan gai nagusia izan zen nola egin herri komunikabide bat. *Arrasate Press* sortu zela laster hamar urte beteko direla, ordea, hobekuntza eta kalitatean egingo da indarra.

## Roman Sdupe Arrasaten

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia Arrasate ikusten izan zen pasa den ostiralean. Azken 12 hilabeteetan herrian zer egin den eta datorren urtean zer egingo den ezagutzeko asmoz, herriko hainbat tokitan ibili zen. Ondoren, prentsurrea eman zuen CIEn. Arrasateren ekimena goraiatu zuen, besterentzat erudugarri izan daitekeela esanez.



## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferreries, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

## Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

## BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak  
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Zure lehen erosketan  
kupoi hau aurkeztu eta  
%15eko deskontua izango  
duzu!  
98-12-6ra arteko eskaintza

Berrikuntzak beti dira ongi etorriak, are gehiago ATLASen freskotasuna eta interesa elkartzen dituztenean. Zerkaosteta kaleko 15.ean dago eta 100 m<sup>2</sup>ko erakusketa dauka. Eskaintza zabala du beraz, gaur egungo giro dinamiko eta gaztearekin.

**IZENA:** ATLAS

**IREKITZE EGUNA:** 1997.eko iraila

**TOKIA:** Zerkaosteta, 15

**ZABALERA:** 100m<sup>2</sup>ko erakusketa


**ARTIKULUAK:** Sport arropa, oinetakoak eta osagaiak

**ESTILOA:** ATLAS, arropa eroso, fresko eta gaztea.

**DESKRIBAPENA:** Etengabeko eboluzioan dagoen enpresa gaztea, kalitate/prezio erlazio ezinobea eskaintzen duten markekin.

**BESTE DENDA:** Okendo kalea, 4 • DONOSTIA

Zerkaosteta, 15, Tel.: 943 79 55 05 • ARRASATE



ITURGINTZA

- ITURGINTZA OROKORRA •
- BAINU ALTZARIAK •
- MANTENIMENDUA •
- BEROGAILUAK •
- AIRE GIROTUA •
- GASA •

**ERAKUSKETA:**

Gipuzkoa Etorbidea 39, behea • ARRASATE

Tel.: 943 77 01 85 Mugikorra: 919 41 44 44


# SUZUKI BI MODELO BERRI AURKEZTEN DITU

## GRAND VITARA



***GALDETU KANPAZAR TAILERRETAN***

## JIMNY



Urte bukaera arte Suzuki Vitara Td. 3 ate. Sapai met. Stand 2.152.000 pta. (\*)

(\*) Oinarizko kolorea eta promozioak barne

**=KANPAZAR TAILERRAK**

Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 41 98

## Lana aurkitzeko ikastaroa

Arrasateko Udalak, Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Antzuolako udalekin batera, "Lana Bilatzeko Talde Aktiboak" izeneko proiektua garatzeko hitzarmena sinatu du. Udaltako Gizarte zerbitzuak erabiltzen dituen jendeari lan merkatuan sartzeko laguntza eman nahi zaio proiektu honen bitartez. Honetarako, datorren astean hasi eta urtebetez, lana lortzeko erabili beharreko teknikak erakutsiko zaizkie ikastaro baten bitartez.

Ikastaroa, Arrasateko Abarroan emango da. Guztira, berrogei pertsonak parte hartuko dute. Helburu nagusia, berriz, jendeari gizarteratzen laguntzea da. Honetarako bide zuzenena, lana aurkitzen laguntzea dela uste dute udalean.

Egitasmo hau Durangoko Zabaltzen-Sartu elkarteak aurkeztu zuen uda aurretik. Garatzea bi milioi t' erdi pezeta kostatuko da. Hortik, milioi bat Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du eta gainontzekoa, aipatutako bost udalen artean.



Fagor-Ederlanek 1.450 langile ditu gaur egun eta horietatik 1.100 bazkideak dira.

## Fagor-Ederlanek 8.000 milioi pta.ko inbertsioak egingo ditu

Fagor Ederlanek 8.000 milioi pta.ko inbertsioak egingo ditu datozen bi urteetan Brasilen eta Zaragozan eraikiko dituen fabrikak egin ahal izateko. Ederlanek hitzarmen bat egin du GM-Opel autogile multinazionalarekin eta honen hornitzaile orokorra bihurtu da Opel Corsa beribilak egiteko. Ondorioz, injekzio plantaren produkzioa dexente haziko da, 27.000 tonatara iritsiz. Inber-

tzio hauen ondorioz, aldi honetan Ederlanek 200 lanpostu sortuko ditu. Fagor-Ederlaneko 700 inguru bazkidek joan den larunbatean izan zuten batzar orokorra Amaia antzokian gai hauetaz erabakitzen.

Kooperatibak Aretxabaletan duen aluminiozko injekzio planta handitzeko asmoa ere badu. 80 langile berri sartuko dira hantxe. Honela,

Eskoriatzako kooperatiba Europako bost produktore nagusienetako bat izango da.

Bazkide kopurua handitu nahi du Fagor Ederlanek. Usurbilen dagoen Victorio Luzuriaga lantegiko langileak Fagor-Ederlaneko bazkide izango dira eta urtarrilean Usurbilgo enpresa kooperatiba bihurtuko da.

Bazkideen %90ek onartu egin zituzten erabakiak.



## Parques y Jardines


**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



## HAUEK BAI MORROSKOAK!

Jaia benetan alaitzen dute erraldoi, kiliki eta dultzaineroek. Badakite musika eta dantzaren bidez giroa jartzen. Hori bai, sasoiari egon behar. Erraldoi bakoitzak 50-60 kiloko pisua du eta.

## YNESTRILLAS ARRASATEN

Joan den astean izan genuen gutun mehatxugarriaren berri izan zuen, antza, eta bere tropak animatzera etorri zen Ricardo Sainz de Ynestrillas espainiar ultraeskuindarra Arrasatera, Hernanira bidean. Herriari bi bira eman, Otalora kalea panfletoz zikindu eta joan egin zen.

## ZEHARO LANPETUTA

Gatzagan egin zen artisautza erakusketan eskulan asko ikusteko aukera izan genuen. Jendea gainera, gero eta gehiago animatzen da nola lan egiten duten galdetzera eta erosi ere erosten du. Jendea pozik, eskulangileak pozik, eta ohiturak sendo.



**¡¡Recuperemos España!!**  
**15 de Noviembre**  
**en HERNANI**  
**¡HEMOS PASADO!**  
 Intervendrá:  
**Ricardo S. Ynestrillas**  
 UNETE A LA RECONQUISTA NACIONAL  
**AUN**  
 Alianza por la **Unidad Nacional**  
 Sede Nacional: C/ Fuencarral, 41 - 2º Izda.  
 28004 - MADRID - Tfno. 91 532 77 95





## HAMAR URTE ETA GERO... HAU!!

Idoiak eta Eduardok datorren asteartean hilabete egingo dute ezkondua. Gutxi oraindik, ezta? Baina lasai. Kontua da, hamar urte luzez irteten ibili direla eta elkar ezagutzeko asti nahikoa izan dutela. Costa Rican izan ziren, primeran pasatzen. Udalaitez Zentru Medikuko langileek zoriondu egin nahi dituzte argazki honen bitartez.

## HORI BAI ZORTEA, HORI!

Argazkiko Migelek 50 milioi pezetako saria eman zuen ostiralean. 71.692 zenbakia zuten hamar lagun izan ziren zortedunak. Migelek, Maalako okindegian saltzen ditu boletoak bere emazte Angela Cuevasekin. 1995ean ere beste 50 milioi pezetako saria saldu zuten.



# IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

ARAOTZ Merenderua


Ingurune zoragarrian  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZ Merenderua  
OÑATI

# Kultur errota, artiste



Joxan Artze usurbildarra

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak Kultur Errota deritzan egitasmoa jarriko du abian azaroan. Proiektu erraldoi honen helburua honakoa da: Euskal Herriko kultur-gile guztiei —hasi berri diren artistei zein ibilbide profesional luzea dutenei— euren lana zabaltzeko zirkuitu bat eskaintzea.

Euskararen normalizazioan eragile izan nahi duen proiektu honetan 11 euskara elkartek jarriko dute agertokia eta hainbat erakunde zein enpresaren laguntza izango du.

Azaroaren amaieratik aurrera 25 artista gitarra gozaten, ahotsak fintzen edo, beste batzuen kasuan, testuak errepasatzen hasiko dira. Izan ere, egun horretatik aurrera 25 emanaldiren bira hasiko da. Kultur Errotaren hegalek jiraka jarriko dira.

Euskara Elkarte eta Herri Aldizkariaren Topaguneak euskaraz sortzen duten artistei kultura zirkuitu berria eskaini nahi die. Ibilbidea 11 euskara elkartek osatuko dute eta horietatik guztietatik igaroko dira Euskal Herriko hainbat abeslari eta olerkari.

Topaguneak jarriko du abian Kultur Errota. Proiektu honen asmoa, euskara elkarten kultura eskaintza aberas-teaz gain, belaunaldi gazteei aukera berriak eskaintzea da. Hori da Errotaren eragileek azpimarratu nahi dutena: “Profesionalen gune izateaz gain, oso garrantzitsua da Kultur Errotak belaunaldi gazteen aldeko apustua egitea”.

## HITZAK LEHENTASUNA

Kultur Errotan hitza erabiltzen duten ekitaldiek izango dute lehentasuna eta, noski, gehienak euskaraz izango dira. “Argi dago kultura ibilbidea sortzean hitzari garrantzi han-

Kultur Errotatik 25 artista inguru igaroko dira eta artista desberdinen kantaldi edo errezitaldiz gozatzeko aukera izango dugu. Dena den, Topaguneak azpimarratu nahi duenez, zirkuitu berri honetan belaunaldi berrien aldeko apustua egin nahi da. Hori dela eta, euskara elkarteek zirkuitu honetan izango duten bultzatzaile lana oso garrantzitsua izango da; herri bakoitzean musikaren arloan hasi berri diren gazteei herritik kanpo euren eskaintza zabaltzeko aukera eman nahi baitzaie.



Caroline Phillips



Xabier Muguruza irundarra



Joseba Tapia lasarte-oriarra



dia eman behar zaiola. Azken batean, Kultur Errotak Topagunea osatzen duten euskara elkarten helburuan—euskararen normalizazioan—eragile eta laguntzaile izan nahi du”. Halere, euskaraz ez diren emanaldiek ere izango dute lekua zirkuituan, “horrelakotan, hizkuntza gutxituei emango zaie aukera, beste hizkuntzetako kultura adierazpenak jasotzeko aukera ona izan daitekeelako”.

## TRADIZIOA ETA BERRITASUNA

Kultura jarduera tradizionalak eta berriak uztartuko ditu

egitasmo honek. “Dudarik gabe, estilo guztiei eman nahi diegu aukera. Tradizionalak diren kultura jarduerekin batera, ideia berrien gune izango da Errota, proposamen estetiko desberdinen bilgunea; hartzaileak ohar daitezela euskal kulturaren esparrua zabala dela; formula modernoak badaudela eta berriak sortzeko ahalmena badagoela”.

## BELAUNALDI GUZTIEN GUNE

Topagunearen egitasmo berri honetan belaunaldi guztiak biltzeko ahalegina egingo da.

# kultur ibilbide berria

Antolatzen diren emanaldiak publiko zabal batentzako izango dira. Dena den, gazteen eskaintzei nolabaiteko lehen-tasuna eman nahi zaie, "batez ere, hizkuntzaren aldetik, giza talde honek duen garrantzia-erengatik".

## LURRALDE TASUNA IRIZPIDE

Euskal Herriko lurraldeen arteko komunikazioa erraztuko duen tresna izateko helburuarekin jaio da Ibilbidea. Lurralde desberdinetako tradizioa eta horietan dagoen eskaintza artistikoa ezagutzeko bitartekaria izan nahi du. Hori horrela izan dadin, Iparraldeko zein Nafarroako artisten lanak ezagutzeko modua izango da proiektu hau.

## ILUSIOA ETA GOGOIA

Topaguneak bi urte daramatza lanean eta denbora horretan euskara elkarte eta herri aldizkari guztiak bilduko dituen gune bat izatearen alde lan egin du. Kultur Errota hori lortzeko beste pauso bat izango da eta Topaguneak indar eta ilusio guztiak jarri ditu Ibilbide horren alde.

Apustua, formato txikiko muntaketak antolatzea izango da, xumeak eta, aldi berean, beroak. Euskara elkarteek eskainiko dituzten espazioak txikiak izateaz gain, artista eta entzuleen arteko harreman zuzena eta gertukoa ahalbideratuko dituen emanaldi sortak jarri nahi ditu aukeran gune honek.

Eta emanaldi sorta horiek kulturaren esparruan urte asko daramatzatenek edo hasi berri direnek osatuko dute. Guztira 25 artista, alboetan azaltzen diren batzuk, hain zuzen ere.

## Zergatik Kultur Errota?

"Egitasmo honen helburuak kultura ibilbideak eskaintzea eta harremanak bideratzea dira. Ez soilik goitik datorren kultura mota, baita herri amasetik jaiotak. Eta, artoa eta gariaren antzera, arnasa ere garatu eta finduko bada, eguneroko bizitzan benetan xertatuko bada, errota eman beharra dago. Hortik kultura errotarena".

"Elkarte bakoitzak bere errota jarri beharko du abian. Izen handiko kultur gileei plaza bero bat eskainiz eta tokian tokiko artistei aukera emanez.

Kultur Errota, azken batean, euskal kulturaren osagai izan nahi du, Euskal Herri guztiak bere arto-haziak zabaldu nahi dituen kultura egitasmo berria".

## Eta horiez gain...

Patxi Kaleko (Txingudi bailarakoak), Ander Lipus (markinarra), Porrotx pailazoa (lasarte-oriarra), Petti (beratarra), Katalin Habans (Larresorkoa), Bi Luma (Aretxabaletakoa), Wonder Brass (bergarrak), Fanbaltza (debarak), Martinola (oñatiarrak), Arima Beltza (elgoibartarrak), Iñaki

Labaka (lezotarra), Kintetosa (bergararra), Urtzi Urrutikoe-txea (bilbotarra), Iñaki Salbador (donostiarra), Mixel Etxekopar eta Maddi Ohienart (xiberutarrak), Tabu tabar (lasarte-oriarrak), Mai Gorostiaga (tolosarra), Itzaletik (azkoitiarrak), The Porter Sharp (irlandarrak).

## Kultur errota parte hartuko duten euskara elkarteak eta babesleak

**EUSKARA ELKARTEAK:** Eta Kitto (Eibar), AED (Arrasate), Berbaro (Durango), Laixan (Oñati), Elgoibarko Izarra (Elgoibar), Geu Gasteiz (Gasteiz), Jardun (Bergara), Loramendi (Aretxabaleta),

Ttakun (Lasarte-Oria), Zuhatza (Deba), Zenbat Gara (Bilbo).

### BABESLEAK:

- Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa.
- Eusko Jaurlaritza.

Jazza, folka, dantzak, erretzitaldiak, pailazoak... Estilo horiek guztiak emango diote mugimendua Errotari.

Izen ezagunak eskaintzen duten kalitatea ziurtatuta egoteaz gain, bidea egin edo egin nahian hasi berri diren taldeek ere zeresana eta zer eskai-


nia badutela adieraziko da egitasmo honetan.

## ERROTAREN BABESLEAK


Kultura Ibilbide berri honek hainbat elkarte eta artistaren oniritzia jasotzeaz gain, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioaren eta Eusko Jaurla-



Michel Ducou baionesa



Mikel Urdangarin



Juan Antonio Urbeltz, donostiarra

ritzaren babesaren ere izan du. Horrelako zirkuitu bati aurre egiteko ezinbestekoa izan da bi erakunde horien laguntza.

Dagoeneko Errotaren hegala jarri dira martxan, eta Errota gelditu ez dadin ur lasterra indartsua izatea besterik ez da falta.

Nerea Navarro



## Ole eta ole!

**A**T Celaya eta Koka Juniors taldeetako bi jokari hauek toreatzen harrapatu genituen. Futbitoan baloiarekin egiten dela uste genuen baina hauek ikusita, bietatik nor da zezena? Adar kontua izango ote da?

### Laburrak

#### ■ TXAPELKETAKO LEHEN GARAIPENA

Hainbat talde izan ziren joan den asteburuan aurtengo lehen garaipena eskuratu zutenak, Zaldibarko futbito txapelketan. Horien artean Bukanak, Rex 23, Serengeti HC, Decadencia eta Bar Nuevo taldeak ditugu. Bost taldeek euren lehenengo bi puntuak eskuratu zituzten txapelketako hirugarren jardunaldian. Ea aste honetan ere emaitza onak lortzen dituzten. Hala ere, txapelketa hasi bai-

no ez dela egin kontuan izan behar dugu.

#### ■ HOBETO BEHARKO LUKETE

Txapelketa hasi berri da, baina badira hobeto aritzea espero zen hainbat talde aurten. Horietako bat dugu Aldibi taldea. Iazko txapeldunak A taldeko sailkapenean 10. tokian dago bi punturekin. Berdin gertatzen zaio Diego Antonio taldeari ere. Honek B taldean jokatzeko du eta oraindik pun-

tu bakarra gehitu du. Sailkapenean hirugarren tokian dago, atzetik hasiz gero.

Koka Junior taldea ere hobeto aritzea espero zen. Hauek 4 eta 3 galdu zuten AT Celaya taldearen aurka eta sailkapenean 12. tokian dade.

Azkenik, Betrayer taldea aipatu behar dugu. Talde hau D taldean ari da jokatzeko eta 6 eta 3 galdu zuten Jako al Reyren aurka. Hauek ere hirugarrenak dira sailkapenean, honi

atzetik begiratzen badiogu, noski.

#### ■ ALDAKETAK SAILKAPENEAN

Hasierako norgehiagokak direla eta, emaitzek aldaketa handiak eragiten dituzte sailkapenean. Adi erreparatu joan den asteko eta aste honetako sailkapen taulak. Talde ugari dira lehen tokietatik azken tokietara pasatzen direnak. Beste batzuek alderantziz egin dute.



## GRONDO

### Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Sailkapenak



## A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
LONTXO TABERNA	3	3	0	0	21	4	6
XHASSS UGARTE	3	3	0	0	23	8	6
ORLANDO PIRATA	3	3	0	0	10	3	6
AC SURKOS	3	3	0	0	18	6	6
PEPELUS	3	2	1	0	11	6	5
KE OXTIAS !!!	3	2	0	1	16	5	4
INSERT COIN	3	2	0	1	9	10	4
KOM. ALPARGAT	3	1	1	1	15	13	3
BALON ROJO	3	1	1	1	6	11	3
ALDIBI	3	1	0	2	11	8	2
REX 23	3	1	0	2	6	9	2
LEYA	3	1	0	2	8	11	2
BUKANAK	3	1	0	2	5	14	2
SERENGETI HC	3	1	0	2	7	17	2
ALAI GOZOKIAK	3	0	1	2	10	17	1
SAUKELU SCREA	3	0	0	3	6	13	0
MAKAI	3	0	0	3	2	14	0
ROTOR BOLBO.	3	0	0	3	4	19	0

## B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIROL.	3	3	0	0	39	3	6
AURRERA BOLIE	3	3	0	0	13	6	6
IRATI STS	3	2	1	0	21	6	5
KKJAURI	3	2	1	0	11	6	5
NARANJA MEC.	3	2	1	0	19	10	5
ZOTZ	3	1	2	0	19	9	4
AT CELAYA	3	2	0	1	9	9	4
POTROSORRI	3	2	0	1	12	22	4
LOS HEREDIA	3	1	1	1	10	10	3
BORROCK & ROLL	3	1	1	1	10	11	3
GARAJE OSKAR	3	1	0	2	16	12	2
KOKA JUNIORS	3	1	0	2	8	9	2
PUB ARROGOI	3	1	0	2	6	18	2
ATERPE KAFE.	3	0	1	2	10	25	1
LAUTERBRUNENN	3	0	1	2	5	16	1
DIEGO ANTONIO	3	0	1	2	8	20	1
DKB	3	0	0	3	10	16	0
ETXE MOBEL	3	0	0	3	8	26	0

## Emaitzak

### A TALDEA

Bukanak 3 - Saukelu Scream 2  
Lontxo Taberna 6 - Isert Coin 2  
Rex 23 3 - Rotor de Bolbogrado 0  
Orlando Piratas 1 - Ke Oxtias!!! 0  
Balon Rojo 3 - Leya 2  
Alai Gozokiak 5 - Xhas Ugarte 11  
Pepelus 3 - Komando Alpargat 3  
Aldibi 3 - AC Surkos 6  
Makai 2 - Serengeti HC 3

### B TALDEA

Borroack & Roll 1 - Aurrera Bolie 5  
DKB 4 - Los Heredia 5  
Etxe Mobel 2 - KKJauri 5  
Garaje Oscar 4 - Naranja Mec 6  
Aterpe Kafetegia 7 - Potrosorri 8  
Txantxiku Kirol. 10 - Lauterbru. 2  
Irati STS 13 - Diego Antonio 2  
AT Celaya -4 Koka Juniors 3  
Pub Arrogoi 1 - Zotz 11

### D TALDEA

Construc. Luso 0 - Decadencia 5  
Potroak 3 - Dribling 4  
Fraguel Gol 2 - Kamasutra 3  
Sokoakoak 3 - EPEH 7  
Betrayer 3 - Jako al Rey 6  
Branka Taberna 3 - Totem 1  
Jotakabau 0 - You Know 6  
Eusko Label 5 - Bar Nuevo 7

## Iruzkina

### Norgehiagoka interesgarriak

#### Larunbatean, Zaldibarren

11:00etan Ke Oxtias - AC Surkos  
12:00etan Txantxiku Kirolak - Irati STS  
13:00etan Lontxo Tab. - Xhaass Ugarte

#### Iturripen

17:00etan Naranja Mecanica - Koka Juniors

#### Igandean, Zaldibarren

12:00etan Potroak - Totem

## D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
DRIBLING	3	3	0	0	16	7	6
YOU KNOW	2	2	0	0	14	3	4
POTROAK	3	2	0	1	15	5	4
EPEH	3	1	2	0	12	8	4
BRANKA TABERNA	3	1	2	0	7	5	4
TOTEM	3	2	0	1	9	7	4
SOKOAKOAK	3	2	0	1	11	11	4
AITA MENNI 2010	2	1	1	0	4	3	3
JAKO AL REY	3	1	1	1	11	9	3
KAMASUTRA	3	1	1	1	10	10	3
JOTAKABAU	3	1	1	1	7	9	3
BAR NUEVO	2	1	0	1	9	8	2
DECADENCIA	3	1	0	2	6	6	2
FRAGEL GOL	2	3	0	1	2	4	1
BETRAYER1	3	0	1	2	6	12	1
EUSKO LABEL	3	0	0	3	10	21	0
CONSTRUC. LUSO	3	0	0	3	4	8	0

## Hurrengo partidak

### Azaroak 21, larunbata

#### ZALDIBAR

09:50 DKB - Lauterburnen  
11:00 Ke Oxtias !!!! - AC Surkos  
12:00 Txantxiku Kirolak - Irati STS  
13:00 Lontxo Taberna - Xhaass Ugarte  
14:00 Decadencia - Jotakabau  
15:00 Saukelu Scream - Aldibi  
16:00 Bukanak - Rex 23  
17:00 Insert Coin - Leya  
18:00 Kamasutra - Bar Nuevo  
19:00 Branka Taberna - Aita Menni 2010

#### ITURRIPEN A

11:00 Orlando Piratas - Makai  
12:00 Borrrc & Roll - Etxe Mobel  
13:00 Dribling - Jako al Rey  
14:00 Rotor de Bolbogrado - Serengeti HC  
15:00 Los Heredia - Protrosorri  
16:00 Sokoakoak - Eusko Label  
17:00 Naranja Mecanica - Koka Juniors

#### ITURRIPE B

13:00 Garaje Oskar - Pub Arrogoi  
14:00 EPEH - You know  
15:00 Aterpe Kafetegia - Diego Antonio  
16:00 Construcciones Luso - Fraguel Gol  
17:00 Balon Rojo - Komando Alpargat

### Azaroak 22, igandea

#### ZALDIBAR

09:50 Alai Gozokiak - Pepelus  
11:00 KKJauri - Zotz  
12:00 Potroak - Totem  
13:00 Aurrera Bolie - AT Celaya

Atsedena: D taldea: Betrayer

# Zubiaga Bitxitegia

## Denbora zaintzen duen saltokia

Maalako errebalatik igarotze-rakoan denda txiki bat dago. Txikia da, baina bere erakusle-hioaren distira handia. Bitxitegiaren izena Zubiaga da, baina bitxiez gain, era guztietako erlojuak saltzen ditu.

Salmahaiaren bestaldea lau langile ibiltzen dira: Eguzkiñe Moreno, Maribel Urrutia, Ana Rosa Lopez eta Elena Fernandez Zubiaga. Azken hau da dendako nagusia duela bederatzir urtetik hona. Eta Elena bera izan zen bitxitegia zaharberri-tzeari ekin ziona.

Bitxiak eta erlojuak soilik saltzen dituzte, espezializazioak hartara eramane dituelako. Saltzeaz gain, konpondu ere konpontzen dituzte. Pedro Fernandez Zubiagaren eskuek dena konpontzen omen dute. Bera da artista. Bitxitegian lan egiten duen gizon bakarrak orain dela hamar bat urte ikasi behar izan zuen lanbidea.

### ESPERIENTZIA HANDIA

Kontu hauek, dena den, gaur egungoak dira, denda sortu



Elena Fernandez arduratzen da dendaren kudeaketaz.

zenez denetarik saltzen baitzen, irriatiak barne.

Julia Zubiaga izan zen bitxitegia sortu eta aurrera eramane zuena. 60. hamarkadaren hasierak ziren haiek, baina lehenago Zubiaga familiak altzari denda bat izan zuen leku berean. Are gehiago, Elena Fernandezek ziurtatzen digunez, bere birramonak edari denda bat jarri zuen Maala erre-

balako 5. zenbakian. Eta hori gutxi balitz, Julia Zubiagaren ahizpek josteko eskolak eskaintzen zituzten dendako atzealdean. Arrasateko amona askok hantxe ikasi zuten josten.

Zubiaga bitxitegira era guztietako pertsonak hurbiltzen dira: belarrian zuloa egitera doazen gaztetxoak; lagunari oparia erostera doan gaz-

tea; edo horman erlojua jarri nahi duen pertsona nagusia.

Azkenik, Elena Zubiagak diosku behin baino gehiagotan bere neskari opari bat erostera joandako mutilak neska aurkitu izan duela dendan bertan. Neska ere opariren bat erosteko asmoarekin, noski. Neska eta mutila harrituta gelditu izan dira, saltzailearen irribarrea eraginez.



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA




**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



- ← Markulete
- ← Garagarza
- ← Gesalibar (Santa Ageda)

- █ Asteleheneretan, asteazkenetan eta ostiraletan
- █ Igandeetan, astearteetan eta ostegunetan



Beti Gaueko 21:00etatik 22:00etara  
**BETIKO GUNEETAN**

**Zaborra**

# Behar den unean

dagokion gunean

# Ander Landaluze bigarren izan zen Udalan

Joan den igandean jokatu zen Euskal Herriko Trial Txapelketako azken proba puntugarria. Udalan egin zen, Arrasateko Motorzale Elkartek antolatuta. Guztira 32 trialzalek hartu zuten parte.

Eguraldiak ez zion mesederik egin probari, euri dexente egin zuen eta aurreko egunetan. Hori dela eta, zortzi gunetatik bat kendu behar izan zuten lokatzagatik. Dena den, parte hartzaileek ibilbide polita egiteko aukera egin zuten.

Arrasateko Motorzale Elkartekoek baieztatu digutenez, hasieran beldurra izan zuten eguraldia txarra izango zelakoan. Azkenean, ordea, jokatu egin zen proba eta jendea gustura baino gusturako aritu zen, lokatza artean.

Sailkapenari dagokionez, afizionatueta lehen sailkatua Jose Mari Gartzia izan zen, 74 punturekin. Gartzia lehen tokian zegoen eta horri eustea lortu zuen Udalan ere. Bigarren Ander Landaluze mondragoetara gelditu zen. Anderrek lesioak direla eta, ezin izan du proba askotan par-



Jende ugari bildu zen Udalan, hotz handia egin zuen arren.

te hartu, baina ezin pasatzen utzi etxean jokatzen zen proba eta igandean bere motorrarekin aritu zen zirkuituan. Trial-eko azken proba izan zen beretzat. Urte askoren bueltan, lagatzea erabaki du eta ez zuen

modu txarrez egin, gainera. 75 puntu egin zituen eta irabazlearengandik bi puntura gelditu zen. Haur mailan garai-pena Juan Carlos Zabalok lortu zuen. Beteranoetan, lehena Armando Ugarte izan zen eta

seniorretan, berriz, Diego Urreta. Azkenik, eta juniorrei dagokionez, garai-pena Gonzalo Zabalak eskuratu zuen. Aurretik bizkaitarra zen lehen sailkatua eta berak lortu zuen aurtengo titulua.

## IGANDEKO SAILKAPENA

### Afizionatuak

- 1 Jose Mari Gartzia (Gipuzkoa) ..... 74 puntu
- 2 **Ander Landaluze** ..... **75 puntu**
- 3 Jose Luis Artola ..... 80 puntu

### Seniorrak

- 1 Diego Urreta (Gipuzkoa) ..... 53 puntu
- 2 Ibon Zorrila ..... 58 puntu
- 3 Imanol Amundarain ..... 62 puntu

### Juniorrak

- 1 Gonzalo Zabala (Bizkaia) ..... 54 puntu
- 2 Gaizka Ruiz ..... 79 puntu
- 3 Gabriel Ritcher ..... 92 puntu

### Haur mailan

- 1 Juan Carlos Zabala ..... 95 puntu

## Kepa Zelaia ONCEra

Kepa Zelaia Euskadiko Kutxako sendagilea da. Horrez gain, US Postal txirrindulari taldeko sendagile izan da orain arte. Orain, ordea, ONCE txirrindulari taldeak fitxatu du datorren denboraldirako. Elorrioren bizi den galdakaotar honek urteak daramatza bizikletaren inguruan lanean. Orain, Abraham Olano eta Laurent Jalabert bezalako txirrindulariez arduratu beharko da.



Kepa beste bi sendagilerekin batera arituko da eta bera izango da nazioarteko probetako sendagilea.



Eibar futbol taldeko jokalaria

## OSKAR SANTOR "GOLO"

*"Eibarko zelaia handiagoa da, baina Atxabalpe baino hotzagoa"*

— Nola lortu duzu Eibar taldean sartzea?

— Denboraldi amaieran proba batzuk egiteko deitu zidaten eta partida bat jokatu genuen Eibarren aurka. Ondoren, taldean jokatu nahi ote nuen galdetu zidaten eta baietza eman nien.

— Mondratik Eibarrera aldaketa handia izan da?

— Aurten izan da Mondratik atera naizen lehen aldia. Eibarren aritzea zaila da. Maila handiko jokalaria daude eta hirugarren mailan. Jendeak oso serio hartzen du eta gu hirugarren mailako talderik gazteenetakoa garenez, igarri egiten da.

— Golik sartzea lortu duzu?

— Aurrelari edo erdilari aritzen naiz. Denboraldi hasieran bi gol lortu nituen eta ligan beste bi. Joan den asteburuan Alegriaren kontra sartu nuen.

— Titularra zara?


— Hasieran, bai. Orain, ordea, ordezkatzen ari nintzena itzuli egin da (min harturik zegoen) eta dagoeneko ez naiz titularra. Hala ere, gustura nabil, jokatzeko aukera ere izaten dut eta.

— Badakizu preferenteko Mondrak ez duela etxean irabazi orain arte?

— Gu ere orain dela bi urte horrela hasi ginen, baina gero goian ibili ginen. Gainera, jokalaria berri asko daude eta hasieran horrelakoak pasatzea normala izaten da. Bigarren itzulian seguraski hobeto ibiliko dira.

— Zein duzu gustukoena Atxabalpe ala Ipurua?

— Eibarko zelaia handiagoa da, baina hotzagoa. Atxabalpen giro hobea egoten da.



## SASKIBALOA Garaipena Iturripen



Garaipena eskuratu zuten Arrasate Saskibaloi taldekoek Iturripen joan den larunbatean. 83 eta 74 gaintitu zuten Arrigorriagako Padura taldea. Partidaren lehenengo zatian mondragoetarrek kanpoko jaurtiketei esker 17 puntuko aldea izatera heldu ziren. Hiruko hiru jaurtiketa sartu zituzten, gainera. Bigarren zatian ere etxe-koak izan ziren nagusi, nahiz eta partidaren amaieran bizkaitarrak emaitzari buelta ematen saiatu ziren. Azkenean, ordea, garaipena etean gelditu zen. Arrasatearren artean Gorosti izan zen markatzaile nagusia, 23 punturekin. Aste honetan Donostiako Askatuak-en aurka jokatuko dute.

## FUTBOLA Atxabalpen ezin




Etxean taldea sendotu egiten dela esaten da eta bisitariak garaipena eskuratzea zailagoa dela. Atxabalpen, ordea, ez dirudi horren zaila denik teoria honen aurka jotzea. Preferente mailako Mondrak etxean jokatu dituen orain arteko norgehiagoka bat bera ere ezin izan du irabazi. Beti Gazte lesakarren aurka 0 eta 2 galduta zuten. Laguntza ere izan dute lesakarek, bi golak penaltiz izan ziren. Mondrak sailkapeneko 17. tokian dago, 11 punturekin. Datorren astean Beti Ona taldearen aurka arituko dira 17:15etan.

Neska futbolariak ere ez dute emaitza onik lortu orain arteko ligan. Esti Loitiren neskek ez dute taldea ondo osatzerik lortu eta joan den asteburuan ere kontrako emaitza

izan zuten, etxean jokatutako norgehiagokan. 0 eta 6 galdu zuten Lagun Onak taldearen aurka. Aste honetan Azkoitiko Anaitasunaren aurka arituko dira Txerloia futbol zelaian.

## ESKUBALOA Garaipen beharrean



Arrasate Eskubaloi taldeak sailkapeneko azken tokian segitzen du. Bernardo Salterainen mutilek ez dute oraindik Iparra aurkitu eta joan den asteburuan ere ezin izan zituzten Egja Yoo-ger's donostiarrak garaitu. Hasieratik tentsioa nabari zen defentsan eta horrek hasieran Egiakoak golak sartzeko zailtasunak izatea eragin zuen. Bigarren zatian, ordea, arbitroak ez zuen mondragoetaren alde erabakirik hartu eta etxe-koek 3 jokalaria eta atezaina rekin amaitu zuten, 17 eta 20. Bihar Loiola-Indautxu-Deusturen aurka arituko dira, Bilbon, 19:00etan.

## ERRUGBIA Oraingoan Garagartzan



Senior mailako errugbilari mondragoetarrek liderraren, Hernaniren aurka jokatu zuten. Patxi Gorosabalen mutilek bazekiten norgehiagoka zaila zela eta horrela izan zen, azken emaitzari erreparatzen badiogu. 33 eta 3 galdu zuten. Asteburu honetan etxean arituko dira Bera-Beraren aurka, larunbatean, 16:00etan izango da. Berritasunen artean Egoitz Unamunoren berragerpena aipatu beharra dago. Egoitz zappi partida egon da jokatu ezinik, zigortuta eta Garagartzan arituko da aste honetan.

## NEREA ALZOLA (IRAKASLE ESKOLAKO IRAKASLEA)

# “Euskararen inguruan gutxi gara etb

Arrasatearra sortzez, 1953an jaio zen. Hezkuntza arloa sakon-sakon landu du Nereak. Pedagogia ikasketak egin zituen zortzi urtean zehar hainbat tokitan. Arrasaten hasi, Gasteizen gero, Madrilera ondoren eta handik Lyonera joan zen. 1978an Arrasatera itzuli eta berehala Irakasle Eskolan hasi zen lanean. Hogei urte daramatza, beraz, irakaskuntzan.

Bestela ere lan ugari egin du Nereak. Txatxilipurdiko sortzaileetarikoa bat izan zen. Euskararen Aholku Batzordeko kide ere bada. Honetaz gain, euskarazko haur eta gazte literatura sustatu, ikertu, eta ezagutaraztea helburu duen Galtzagorri elkarteko presidentea izan da orain gutxia arte.

— Elkarte askotan ibili zara. Zergatik?

— Niretzat oso garrantzitsua da bizitzan lanbide eta bizi-

tza pribatua bat izatez gain, doaneko lanak egitea, beste gune batzuk izatea. Pertsona aberasteko oso interesgarria da mota honetako ekintzak egitea.

— Hainbeste urte Irakasle Eskolan, ez zara asper-tu?

— Bada, ez. Lan oso bestelakoa egin izan dut. Edo hobeto esanda, lan bera, baina eginkizun desberdinekin.

Irakasle Eskolan eginkizun asko dago: eskolak, prestakuntza iraunkorra, aldizkariak, sail berriak, mintegiak, gidak...

— Haur eta gazteen inguruan lan asko egin duzu beti. Zerk bultzatu-ta?

— Txirripaz. Bai, batzuetan kasualitate txiki-kienek bide handienak zabaltzen

dituzte. Nire ikasketak bukatu eta irakasle lana aurkitu nuen. Txatxilipurdiri dago-kionez, orduan ni AEDn nenn-bilen; aukera hori eskaini zidaten eta nik hartu.


Asko ikasi dut gazteekin: Irakasle Eskolan irakasle beza-la eta Txatxilipurdin beste

mota bateko harremana izanez. Izan ere, Irakasle Eskolan irakaslea naiz azken finean, notak jartzen ditut, nolabaiteko “boterea” daukat. Txatxilipurdin oso bestela da. Gainera, Txatxilipurdin izan dudana taldea bikaina da.

— Euskararen Aholku Batzordea eta orain sortu berri den Euskararen Kontseilua osagarriak lirateke?

— Hori espero dut. Begira, Euskararen Aholku Batzordeak meritu garrantzitsu bat izan du: jende askotarikoa biltzea. Eta horietariko asko Euskararen Kontseiluan daude.

Euskararen inguruan gaudenok gutxi gara eta gure artean indarrak biltzea beharrezkoa da, nahiz eta ikus-



“Helduak beti gabiltza irakurtzeko esaten, baina gero askok eta askok ez dugu irakurtzen. Zuk ez baduzu zaletasunik, ezin duzu transmititu”

# “beharrezkoa da indarrak biltzea”

pegi bestelakoak izan. Orain gainera, oso egoera interesgarrian gaudela uste dut horrelako gauzak garatzeko.

— **Euskara Biziberritzeko Planean ere bazabiltza. Euskara biziberrituko dela uste duzu?**

— Herri honek merezi du hori lortzea. Baina era berean, uste dut erronka oso handia dugula aurrean. Euskal Herrian gaur egun eleanitzak gara, batez ere haurrak. Zenbait hizkuntzak indar izugarria dute, ingelesak adibidez. Era berean, hizkuntza asko desagertu egin dira eta desagertuko dira. Ondorioz, erronka izugarria dugu. Baina nik

uste dut badagoela motiborik itxaropentsu sentitzeko.

— **Zeintzuk dira euskararen inguruan Arrasaten izan diren aldaketa nagusiak?**

— Batez ere euskararen balorazio soziala hoberantz aldatu da. Gaur egun, nahiz eta batzuek euskara maitatu ez, haurrak euskaraz ikastera bidaltzen dituzte. Leku askotan euskara jakitea beharrezkoa da lanpostu bat lortzeko edo ikasketak jakin batzuk egiteko. Horrek gizarteak euskararekiko duen iritzia aldarazi du.

Beste aldaketa izugarri bat izan da ikasketak euskaraz egitea, batez ere gazteen artean euskara erabiltzeko orduan.

Lehen ikasketak gaztelaniaz egitearen ondorioz, gure artean ere gaztelaniaz egiten genuen gehienetan.

— **Zein behar nagusi dauzka euskarak Arrasaten?**

— Haur hezkuntza eta haur eskolak mimatzea. Baina hori ez da oso kontuan izaten udaletxean, aurrekontuan... Landu beharreko beste gune garrantzitsu bat gazteena da.

— **Irakasle Eskola MUn sartu zenean ere aldaketak bizi izan dituzu. Zein alde on eta ez hain on nabarmenduko zenituzke?**

— Alde batetik, ikasketa

berriak eskaintzeko aukerak izugarri areagotu dizkigu, haremanak zabaldu... Baina era berean, horrela handitzen denean asko zaindu behar da burokrasian ez jausteko. Nik uste dut erronka dela kooperatibismoa bere baloreekin biltzea.

— **Haur eta gazte literaturaren inguruan duzun kezka zein da?**

— Bata, liburuen kalitatea. Eta beste bat, helduen irakurzaletasuna. Helduak beti gabiltza irakurtzeko esaten, baina askok eta askok ez dugu irakurtzen. Zuk ez baduzu zaletasunik, ezin duzu transmititu.

## Lazaro

Sonero kubatarraren emanaldia

Hemen duzu saltsa!!

Larunbata 21 gaueko 12:00etan



Kupoi hau ekarrita, txupitok bat izango duzu doan eta CD baten zozketan parte hartuko duzu!!

Ikas ezazu dantza egiten **Nayrelis**-ekin  
Galdetu Aterpe kafetegian

Nayrelis



Kuntzako erritmoak - Rumba - Rueda - Salsa - Cha, cha, cha - X

Koreografiak - Kabinari tonitok

## ATERPE

### Kafetegian

Otalora Lizentziatua, 4  
Tel.: 943 77 03 87

# Mugak gaindituz, Arrasatek euskarari... BAI!

Arrasateko Bai Euskarari batzordeak tinko darrai lanean euskararen normalkuntza prozesua bizkortzea helburutzat hartuta. Hori dela eta, azaroan eta abenduan zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Arrasateko Bai Euskarari batzordea ikastola eta herri ikastetxe, AEK, Euskalan, AED, Txatxilpurdi, Udatxe-ko euskara saila, Euskal Herrian Euskaraz eta Orkatz taldeek osatzen dute. Hauek guztiak izan dira datozen bi hilabeteetarako egitarau oparoa osatu dutenak.

Azaroaren 22rako, igandera-ko hain zuzen ere, "Mugarritz mugarri... Arrasate eza- gutzen Euskarari bai" mendi martxa antolatu dute. Goizeko zortzietan irtengo dira Garibaiko geltokitik mendizaleak.

## KALEJIRA ETA ANTZERKIA

Azaroaren 26an, berriz, ikastetxeetako haurrek kalejira

egingo dute herriko erdigunera. Ondoren Zaldibarko pilotalekuan hormirudi margoketa eta merendola izango da, eta herriko plazan pankarta zintzilikatu ostean, herriko bertso eskolako bertsolariek bertsoak abestuko dituzte. Antzerkia gogoko dutenek ere IKA taldearen eskutik "euskararen ofizialtasuna" antzezlanaz izango dute Gaztetxean.

## AFARI HERRIKOIA

Aste bereko larunbaterako, ostera, arratsaldean herriko plazan egingo den giza kateaz gain, kiroldegian egingo den herri afaria ere antolatu dute batzordekoek.

Ekitaldi hauekin hainbat helburu erdietsi nahi da: herria girotzeaz aparte, Bai Euskarari kanpaina ezagutarazi nahi da alde batetik. Bestalde, Kontseiluak abenduaren 28an Euskal Herriko bost futbol estadiotan antolatu duen jaialdi erraldoirako herria girotu nahi da.



"Bai euskarari" XXI. mendeko akordioa.

## Film laburren emanaldia Jabiloren alde

Azaroaren 26an, ostegunean, film laburren emanaldia izango da Amaia antzokian, gaueko 10etatik aurrera. Aipatu ekitaldia antolatzeko abiapuntua bikoitza izan da: batetik, Jon Andueza, Aitor Agorria eta Xabier Alberdiren "Bernar" film laburra Arrasaten aurkeztea. Bestetik, berriz, Aita Menni ospitalean dagoen Jabi Mayor mondragoetarrarentzat dirua biltzea. Izan ere, salgai jarritako 800 sarrerekin lortutako diru guztia Jabilori zuzenduko zaio.



"Bernar" filmaren bi aktore.

"Bernar" film laburraz gain, beste lau film ere izango dira ikusgai, ordea. Talde

berberak iaz egindako "4. galeriatik", eta gaztelaniazko beste hiru film: "Libre indirecto", "Parabellum" eta "Cien maneras de hacer el pollo al chilindrón".

"4. galeriatik" Arrasaten behin baino gehiagotan eman izan dute. Dena den, Jon Andueza adierazi bezala, "Danel Goikolea eta Kepa Altuberekin batera Jabilok ere dekoratuak egiten parte hartu zuenez, omenalditxo bat eskaini nahi izan diogu Jabiri filma berriz emanez".

Film laburren emanaldi hau ez da Jabilorentzat dirua lortzeko egingo den ekimen bakarra, ordea. Arrasate Musikaleko kintetoak eta Gokobaluk eskainiko dituen kontzertuez gain, otsailaren 6rako jaialdi folklorikoa ere antolatu dute Al Andalus, Corazón de Encina eta Lore Gazteak taldeekin.

Beraz, ikuskizun eder batez gozatuaz Jabilori laguntzeko aukera paregabea izango da ostegun honetan Amaia antzokian.

FELIX AIALA "FELIKO", MARGOLARIA

## "Margolanak zerbait esan behar du"

Felix Aiala Urtubi, "Feliko" gaitzizenaekin ezagunagoa dena, Erdiko kalean jaio zen duela 58 urte. Betidanik gustatu izan zaio margotzea, baina abenduan hasi zen "serio" margotzen. Arrasatear honek San Ferminetako entzierro osoa bildu nahi izan du 29 margolanetan. Bere lanak azaroaren 20tik abenduaren 5era egongo dira ikusgai, Arrasateko Harresi aretoan.

— Nola bururatu zaizu San Ferminetako entzierroaren ibilbidea margolanetara eramatea?

— Zezenak izugarri gustatzen zaizkit. Urte asko egin ditut San Ferminetako argazkiak biltzen, eta bideo eta argazki asko ikusi ondoren, gai interesgarria iruditu zitzaidan.

— Zein da margolanak egiteko jarraitu duzun prozedura?

— Astoaren aurrean jarri eta imajinazioaren laguntzaz, aurrera egin dut. Horretaz gain, irakasle bat izan dut gidatu nauena, Luis Laskurain bergararra hain zuzen. Luisekin asko ikasi dut margolaritzari buruz: kolore kontua, espazioa, margolanari bolumena ematen... Nik aurrez banekiñen marrazten, baina pintatzen Luis ari zait erakusten. Autodidakta bat nahi duena margotzera irits daiteke, baina margolaritzan badira oinarritzako diren kontzeptuak, eta horiek norbaitek erakutsi ezean, zaila da norberak barneratzea.

— Zenbat denbora igaro duzu bildumako 29 lanak margotzen?

— Margotzeak ez dit lan handirik ematen. Zortzi hilabeteen zezenei buruzko 29 margolan margotu ditut, baina horiek ez dira margotu ditudan mihise bakarrik izan. Badira lan batekin hilabeteak igaro dituztenak.



Nik, ordea, margolan bat bukatuta dagoela ikusten dudanean, bukatutzat ematen dut. Ez dago lan batekin nahastu eta bukatutzat ematen ez jakitea bezalakorik.

— Beste gairen bati buruzko margolanik margotu duzu?

— Orain marinelei buruzko margolanak egiten ari naiz, batez ere figuran oinarrituta. Arrantzale bikote bat legatzaren arrantzuan, itsasotik itsasontzira antxoia igotzeko unea...

— Zein da mihisetara eramateko gustukoen duzun gaia?

— Figura. Klasikotik irteeta gustatzen zait. Bodegoiak eta paisajeak alde batera utzi eta nahiago dut mugimendua duen edozer gauza margotu.

— Mihise baten aurrean jartzean, zein helburu izaten duzu?

— Disfrutatzea eta neure buruarekin pozik gelditzea. Margotu dudan hori atsegina izatea, eta egin dudanarekin pozik gelditzea. Nire ustez, margolan bat ez da azaldu beharreko zerbait; margolanek zerbait esan behar dute.

## aste gazte

### ■ OBJEZIOA-INTSUMISIOA

• Soldadutzara joateko azaroko zozketan sartu bazaituzte eta zer egin ez baldin bada-kizu, etor zaitez Gazte Bulegora eta azalduko dizugu beste zein irtenbide daukagun.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Urola Kostako Mankomunitateak arraunketari buruzko euskarazko materiala sortzeko beka deialdia egin du, kirol honi buruzko fitxa didaktikoak sortzeko helburuarekin. Epea: azaroak 30.

• Alemaniako Goethe Institutuan aleman ikastaroak egiteko aukera, ikasketen azken edo azkenaurreko kurtsoa egiten ari diren ikasleentzat, edo unibertsitateetan lanean diharduten tituludunentzat. Epea: abenduak 11.

### ■ LANA

• Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatean bi euskara teknikari lanpostu bete nahi dira. Epea: azaroak 23.

• Durangoko Udalerako udaltzain bat behar da. Epea: azaroak 30.

• Donostiako Euskararen Udal Patronatuak administrari laguntzaile bat behar du. Epea: abenduak 1.

• Aiako Udalak, aparejadore arkitektu tekniko bat nahi du. Epea: abenduak 5.

### ■ LEHIAKETAK

• "Gordexolako Harana" XI. Ipuin lehiaketa, 6 urtetik 30 urte arteko pertsonen zuzenduta, gai librean, irudimena, sormena eta itxura sarituko dira. Epea: abenduak 11.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65

"Margolaritzako kontzeptuak norbaitek erakutsi ezean, zaila da norberak barneratzea"

**ETXEBIZITZAK**

**2. Erosi**

- Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 94 499 01 05 (Milagros).
- Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 70 73.

**3. Errentan emateko**

- Berriztutako etxebizitza alokagai, Arrasate erdian. Tel.: 990 26 72 63.
- Erdi aldean bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuak deitu telefono hauek: 943 79 21 30 (goizez) edo 943 79 82 43 (arratsaldez). Mari

**4. Errentan hartzeko**

- Etxebizitza alokatuko gendak Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 943 79 20 61 (Ibon).
- Arrasate edo Aretxabaletan etxebizitza alokatuko nuke. Tel.: 943 79 39 78.

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasate edo inguruetako herrietan, bakarrik bizi edo etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 71 46 (Fernando).

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: 94 445 10 71.

**5. Etxeak osatzeko**

- Ikasle batzuek etxebizitza alokatu nahiko gendak Arrasaten. Tel.: 943 79 79 38 (Danel).
- Gela bat alokatuko nuke Arrasaten edo pertsona bat falta zaien etxebizitza osatuko nuke. Tel.: 943 31 30 56. Gaueko 20:00etatik aurrera. Garikoitz

- Irakasle batek logela bat beharko luke, osatzeko dagoen etxebizitza batean. Tel.: 943 79 07 84.

- Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Hiru logela hiru pertsonarentzat, Arrasateko erdialdean. Tel.: 930 71 29 31. Arratsaldez.

- Gela bat alokatu nahiko nuke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 943 77 01 21. Mitxel. Gaeuz deitu.

- Logela bat behar dut ikaslez osaturiko etxebizitzan. Tel.: 94 683 00 86.

- Alokairuan hartuko nuke etxebizitza

**ETXEBIZITZAK**

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**

17. Eskaintzak
18. Etsakerak
19. Bestelakoak

**GARAJEAK**

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**

20. Eskaintzak
21. Etsakerak
22. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**

12. Saldu

**MOTORRA**

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



**943 77 05 65**

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

tza bat edo logela bat. Tel.: 943 18 03 78 (asteburuetan) eta 943 76 55 67 (asteazkenetan).

- Etxebizitza edo logela behar da Arrasaten. Tel.: 943 79 59 60 (lan orduetan).

- Bi langilek beste lagun bat behar dute Arrasaten dagoen etxebizitza osatzeko, Erguin auzoan (bakoitzak bere logela). Tel.: 943 77 15 67.

**LOKALAK/ORUBEAK**

**12. Saldu**

- Garaje itxia salgai Kontezino inguruan. 18,9m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 96 17.

- Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko lokala salgai. Tel.: 943 79 07 24.

**15. Errentan hartzeko**

- Gazte batzuek toki bat behar dute alokatzeko, Musakolan ez den beste edozein lekutan. Tel.: 943 79 17 19. (Sergio, gaueko 21:00etatik aurrera).

- Neska talde batek toki txiki bat alokatuko luke. Tel.: 943 79 94 07 (Leire).

- Taberna alokatuko nuke Arrasaten, Aretxabaletan edo inguruetan. Tel.: 943 79 87 40 / 930 444 658

**GARAJEAK**

**7. Saldu**

- Garaje itxia salgai Zarugalde kaleko 16.ean. 16m<sup>2</sup>koa. Tel.: 943 79 02 79.

- Lonja salgai Uriburu kalean. Tel.: 943 79 45 58.

**19. Errentan emateko**

- Uarkapen garaje itxia alokatzen dut. Prezio onean. Tel.: 943 79 84 35.

**14. Errentan emateko**

- 75 m<sup>2</sup>ko lonja bat alokagai Anbotu kalean. Tel.: 943 79 98 07.

**LANA**

**17. Eskaintzak**

- Neska prest umeak zaindu, etxeko garbiketarak egin edo saltzaile bezala aritzeko. Tel.: 943 79 69 66. (Ainhoa).

- Andra euskalduna prest umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

- Esperientziadun andra gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 54 48.

- 40 urte inguruko emakumea prest pertsona nagusiak edo gaisoak zaintzeko. Bokazio eta esperientziaduna. Tel.: 617 20 59 49.

- Soprano profesionalak kantu eta ahots eskolak ematen ditu. Tel.: 943 76 65 24.

- Turismoan lizentziaduna (euskara eta ingelesa daki) bidaia agentzia batean eta antzekoetan lan egingo luke. Tel.: 943 76 37 80.

**18. Etsakerak**

- Emakumea behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 77 13 30 (20:00etatik aurrera).

- Pertsona euskalduna behar da umea zaintzeko. Tel.: 943 79 21 46. (21:00etatik aurrera).

- Ite apaindegirako modeloak behar dira. Tel.: 943 77 09 44

- Esperientziadun sukaldaria behar da. Deitu 943 79 22 15 telefonora (astearteetan izan ezik).

- Ite apaintzaile esperientziaduna behar da. Tel.: 943 76 29 58.

- Emakumea behar da arratsaldeetan 6 eta 8 urteko umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 78 65.

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

- Ingalaterrako lizentziadunak ingelesezko eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 919 54 64 64.

- Eskolak ematen dira: DBH 2. zikloa eta batxilergoa, matematikak erakusteko. Tel.: 943 79 08 59.

## 21. Eskaerak

• Eskolak hartuko nituzke gai hauetan: programazioa, sistema eragileak eta sareak. Tel.: 945 44 51 56.

• Ekonomia alorreko matematika irakasle bat behar dut, Batxilergo LOGSE 2. mailan. Tel.: 943 79 39 62.

• Ingeles eskolak hartuko nituzke ostiral arratsaldeetan. *Advanced* maila. Tel.: 943 79 16 63/943 79 47 68.

• Frantsesezko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 36 09 (Xabier).

• Neska bat behar da eskolak emateko adineko bati. Tel.: 919 337 582 (Taniaz galdetu).

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Opel Corsa 1.2 Swing salgai. Kolore beltzekoa. SS - V. Tel.: 943 64 39 14.

• Kawasaki GPZ 400 F2 salgai. 94 urtekoa. Berri antza. maleta bat eta bi buru babesarekin. Tel.: 943 79 63 79.

• Ford Scort XR3 (SS-AC) salgai, prezio onean. Tel.: 943 71 44 45.

• Hyundai Coupe salgai. 1.600 cc. 16 v. 114 HP. 97 urtekoa. urte diko garantia ofizialarekin. 33.000 km. Tel.: 930 22 80 85 (Jesus).

• Peugeot 106 salgai. Tel.: 943 79 67 12 / 943 79 75 93.

• Ford Sierra 2.01 Guia salgai. Egoera onean. 130.000 km. Prezioa adosteko. Tel.: 943 79 72 34. David.

• Nissan Vanetta furgoneta salgai. VI-M. Merke-merke. Tel.: 943 79 58 29.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Pentium 133 ordenagailua salgai. Giga bateko disko gogorra. 15 hatzeko monitorea. Inprimagailua. Windows 98. 32 mega RAM. CD Rom. 100 wko bozgoragailuak. Office 97. Tel.: 943 78 14 72.

• Bi oheko logela osoa salgai oso-oso merke. Tel.: 943 79 89 07

• Bulegorako altzariak salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 84 35.

• Flex markako literak salgai. Egoera onean. Prezioa 30.000 pta. Tel.: 943 79 57 64.

• Argazki makina salgai. Minolta X-300. Tamron 28-200 objetiboa. Starbiltz flash-a. Tel.: 943 88 16 08. Arratsalde edo gauez.

• Bebe-Confort markako ume kotxea salgai. Euritarako plastikoa dauka. Aulki estalkia dauka. Tel.: 943 79 38 16 (10:00etatik aurrera) Idoia.

• Mahai tolesgarria salgai. Tel.: 943 79 18 50 (Sole).

• Alpha markako fly berde bat sal-tzen dut. Tel.: 943 79 54 14 Julen.

### 27. Erosi

• Zerrajerako egurrezko berogailu zahar bat erosiko nuke. Tel.: 943 79 11 24 (Ramon).

### 29. Eman

• Gurpil-aulkirik, taka-takarik edo makulurik badaukazu eta ez badituzu behar, beste pertsona batzuek bai. Harremanetarako telefonoa: Bego Falces. Osakidetzako gizarte-laguntzailea. Tel.: 943 77 03 46/943 77 12 37.

• SOS. Ijitoek mantak behar dituzte. Laguntzeko prest bazaude, eraman itzazu Zaldispoko aparkalekura edo Jai zale tabernara 15:00etatik aurrera. Eskerrik asko.

### 31. Galdu

• Pasa den ostiralean argazki album txikia galdu genuen Mikel Lasa aseguru etxearen eskaileretan. Aurkituz gero, deitu, mesedez, telefono honetara: 943 79 90 91 (Nerea).

• Maritxu gauean Osorik tabernan gizonetako trajearen jaka urdin iluna galdu nuen. Aranburun egindakoa da. Aurkituz gero, deitu mesedez. Tel.: 943 79 43 59.

• Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Urkulun, zorro eta guzti. Tel.: 943 79 10 39

• Pasa den larunbatean, azaroak 14, zilarrezko kataia eta eraztuna galdu nituen, Arrasate Pasealekuaren inguruan. Aurkitzen badituzu, deitu 943 79 20 99

### 32. Aurkitu

• Ordularia agertu da Sokoia tabernan. Real Madridekoa da. Tel.: 943 77 00 89 (Monika).

# HITZALDIA

"gizonak eta emakumeak:  
behar dugunaren eta desiatzen dugunaren  
arteko kontraesanak"

Hizlariak: **Agurtzane Ormaza**  
**Garbiñe Merino**

Eguna: **azaroak 26, osteguna**  
Ordua: **arratsaldeko 19:00etan**  
Tokia: **Monterroneko hitzaldi aretoan**



Antolatzailea:

**Informazio eta orientazio sexualeko bulegoa**

ARRASATEKO UDALA

*cerámicas*  
**URIBARRI**

*Zeramika erakusketa  
eta salmenta*

Uribarri Etorbidea, 22 - B  
Tel.: 943 79 81 80 Faxa: 943 79 81 80  
**ARRASATE**



# Julio Galarta aurrez aurre

Afal ondorengo postrea ongi baino hobeto zerbitzatuko digu ATBk datorren astean ere. Asteartean Marta Izagirrek eta Iñaki Olaizolak aurkeztutako *Musiklasik* saioarekin, musika klasikoa atsegin duten guztiek gozatu ederra hartuko dute. Alde batetik Oihuska haize taldearen doinuak hurbilduko dizkigute bi aurkezleek. Bestetik, berriz, Sarajevoren alde egindako kontzertuko musika ere jarriko digute entzungai.

Asteazkenean margolari arrasatear handi bat izango du aurrez aurre Karmele Zuazubizkarrek. Margolaritzako kontuez gain, bere bizitzako zertzeladak kontatuko ditu Julio Galartak, gaueko bede-



Karmele Zuazubizkar eta Julio Galarta.

ratzietatik aurrerako saioan.

## SKA ETA "FELIKO"

Ostegunean "Skandalo publiku" ska taldearen lan berria aurkeztuko dute Unai Iparragirrek eta Aitziber Langara-

nek *Kaleidoskopia* saioan. Baina, beste arrasatear famatu baten margolanak ere izango dituzte hizpide. Izan ere, Felix Aiala "Feliko" k Harresi Aretoan erakusgai dituen San Ferminetako entzierroa-

ri buruzko margolanei buruz ere mintzatu dira. Horretaz gain, Betirtzek libururen bat edo beste aurkeztuko digu bere ohiko liburuaren txokotan. Anartz Agirre bergararrak, aldiz, zineko film politenen argibideak eskainiko ditu. Programa honen ondoren, gaueko hamarretan hain zuzen ere, *Soinuz Blai* musika saioa izango da, Edu Gonzalezek aurkeztuta.

Ostiralean Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak izango direnez, albistegia ere berezia izango da, hauek aipamen eta leku berezia izango baitute berri emankizunean. Berrien ondoren, *Soinuz Blai* saioa izango da berriro, aurreko egunean

## ■ ATBren programazioa

### LARUNBATA, 14

**13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Munduari Buelbaka, Alkatearekin Berbetan, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

### IGANDEA, 15

**13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:**  
Munduari Buelbaka, Alkatearekin Berbetan, Ekilan, Soinuz Blai eta Astebete.

### ASTELEHENA, 16

**13:30 Albiste aurrerapena**  
Zigor Txurrukak aurkeztuta.  
**13:35 Astebete** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Mondrasport** Itxaro Zubillagak aurkeztua.



Zigor Txurruka.

### ASTEARTEA, 17

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Mondrasport** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Musiklasik.**  
Oihuska haize taldea eta Sarajevoren aldeko kontzertua.

### ASTEAZKENA, 18

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Musiklasik.** (Errepika).  
**20:00/20:30 Berriak.**  
**21:00 Aurrez Aurre.**  
Julio Galarta Arrasateko margolari handiaren izango da so-lasean Karmele Zuazubizkar.



Karmele Zuazubizkar.

### OSTEGUNA, 19

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Aurrez Aurre.** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.**  
**21:30 Kaleidoskopia.**  
"Skandalo publiku" ska taldearen lan berria eta Feliko Aialaren argazki erakusketaren berri emango digute Unai Iparragirrek eta Aitziber Langaranek.  
**22:00 Soinuz Blai.**

### OSTIRALA, 20

**13:30 Albiste aurrerapena.**  
**13:35 Kaleidoskopia** (Errepika).  
**20:00/20:30/21:00 Berriak.** Herri Komunikabideen jardunaldiei buruzko informazioari trataera berezia emango zaio.  
**22:00 Soinuz Blai.** (Errepika).



**U** 1955. urtean, Arriaran Iia pilotariari ongi etorria egin zioten Mondragoen. Eskuz banakako txapelketa eskuratu zuen orduan, Joxe Mari Soroari 22 eta 13 irabazi eta gero Berga-

rako udal pilotalekuan.

Argazkian, Udalaren Musika banda agertzen da, Portaloian, jo eta fuego Joxe Arriararen ongi etorria animatzen, jendetza handiaren erdian.

Bandaren aurrealdean, Justo Munarriz doa, zuzendaria.

Bonboa eta txindatak jotzen, berriz, *Zelaitxo* aita-semeak: Mariano Azkarate aita eta haren semea, Jesus, azken hau txindatak jotzen.

Egun handia izan zen Arrasaten eta herritar asko irten ziren kalera txapeldunari ongi etorria egitera.

-----  
**Argazkia:**  
Arrasateko Udala.  
**Berriemailea:**  
Bixente Azkarate.



HOTEL  
MONDRAGON

- *Buffet-Gosaria*
- *Bazkariko menua eta karta*

- *Kafetegia*
- *Piano-Taberna*
- *Afariko menua*

Tel.: 943 71 24 33 **Biteri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel: 943 71 24 33**



# KALITATEAREN KONPROMISOA.

*NACEX. Sen bete egiten ditugu geure konpromisoak. Horregatik, hiru urtean zehar ondo egindako lanaren ondoren, AENORek ematen duen ISO 9002 Ziurtagiria lortu dugu. Berme bat gehiago NACEX. Srekin lan egiten duten enpresentzat eta kalitate konpromisoa etorkizuneko bezeroekin.*



**900 100 000**

Informazio orokorra  
<http://www.nacex.com>  
Email: [nacex@nacex.com](mailto:nacex@nacex.com)

**PAKETE ETA DOKUMENTUEN PRESAZKO GARRAIOA**



**943 79 92 77**

**Bizkaia Etorbidea, 16 behea • ARRASATE**

**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohidraulikoa, korrrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Motor hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v-*ra*; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan. Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZU

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86